

ARRASATE

PRESS

Arrasate 1991ko Maiatzak 31, 109. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean



**BEGOÑA
GARAI,
ATBko
beste
aurpegia**



Animaliak osatzen


Jabier



HOTZ - BERO

Kanpantorpea, 2 Tfnoa: 79 70 98 / 79 67 54
ARRASATE

TOSHIBA
BENETAKO KONFORTA



AIRE EGOKITUA

Lehen

EUSKAL HIZTEGI ENZIKLOPEDIKOA

Lur Argitaletxea

BAKARRA EUSKARAZ

ESKAINZA BEREZIA

- Enziklopedia kaleratzean 96.000 PTA balioko du.
- Orain suskripzioa egiten baduzu, abantaila izugarria izango duzu. 70.000 PTA gatik BAKARRIK eskuratu dezakezu.

ETA GAINERA...

- Hasieran, 6.500 PTA bakarrik ordainduz.
- Enziklopedia eskuratzekoan 12 hilabetetan erraztasun osoz ordain dezakezu.
- Opari bat ere, izango duzu:
 - Euskal esmoldeak 1 (K. Izagirrerena)
 - Euskal esamoldeak 2 (R. Etxazarretarena).
 - Walki-Talkie bat.

ZURETZAT ABANTAILAK:

- 26.000 PTA gutxiago ordaintzea.
- Opari bat jasotzea
- ordaintzeko erraztasuna izatea

AZKAR IBILI EZ
UTZI GERORAKO

Informazioa: Lurdes Berasategi, JL Iñarra pasealekua, 30. Tfnoa. 79 20 19

Konpromezu barik, EUSKAL HIZTEGI ENZIKLOPEDIKOARI buruzko informazioa jaso nahi dut

Izen-deiturak


Helbidea

Herria Tfnoa:



Gazteen II. Argazki Lehiaketa

- **Gaia:** Gazteen grinak
- **Partehartzailearen adina:** 14-35 urte
- **Modalitateak:** zuribeltzean nahiz koloretan
- **Sariak:**
 1. 60.000 PTA
 2. 40.000 PTA
 3. 30.000 PTA
 20.000 PTAko akzesita
- **Epea:** irailak 27



"Soriasis" Joseba Valles

ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)
Azoka kalea 1, 20.500 ARRASATE.
Tfnoa: 77 05 65

Laguntzailea:

Arrasateko Udala

Zuzendaria:

Joxe Aranzabal

Erredakzioa:

Beñardo Kortabarria. Arantzazu Loidi

Publizitatea eta harpidetak:

Josune Biteri
Tfnoa: 77 08 15

Maketazioa:

Goio Arana

Erredakzio-kontseilua:

Jose Felix Diaz de Tuesta, Harry Zاراia, Iñaki Mendiguren

Kolaboratzaileak:

Josemari Velez de Mendizabal, Mikel Irizar, Karmele Zuazubiskar, Patxi Montero, Juan Martin Elexpuru, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Gerardo Markuleta, Estepan Plazaola, Jesus Mari Garai, Juanito Leibar, Jerardo Elortza, Blanka Jauregi, Klarion Taldea, Joseba Vallés, Karmelo Uribarren, Iñaki Aranburu, Hankamotz, Maite Toledo, Atalaitaikoan, ASA taldea, Xabin Arrieta, Txipi Ormaetxea, Arantxa Ozaeta.

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

Banaketa arduraduna:

J. L. Arejolaleiba

Copyright:

ARRASATE PRESS

Tirada: 7.000 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

Frankeo kontzertatua: 37-60

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.



ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Ezbeharreko kate luzea

1 971n entzun genuen gehienok lehen aldiz Bangla Desh. "Bangala Askea" izenez jaio zen estatu berri haren hastapenak ez ziren nolana-hikoak izan, India eta Pakistanen arteko liskar krudelak odolez margotu bait zituen bengaliar askeen bizitzak. Ez zen nazioartekotasunaren laguntzarik falta izan. Garaiko musikaririk eragileenetakoek kontzertu pare bat antolatu zuten, New Yorkeko Madison entzutetsuan: George Harrison, Ravi Shankar, Bob Dylan, Ringo Starr eta abarrek disko eta pelikula bat ekoiztu zituzten ekintza hartatik. Asmoa Bangla Desheko errukigarri haiei diru apur bat iristeraztea zen, hain zuzen ere, pairatzen ari ziren behargorritasun itzel hartan arnas pixkat har zezaten. Hamaika bat urte beranduago-1982!!!- heldu zen UNICEFen eskuetara kontzertu, disko eta pelikula haien dirua. Burokrazia, ezgaikeria, lazakeria... nagusitu zitzaizkion musiko haien solidaritateko proiektuari.

Gazteenek oraintxe adituko zuten Bangla Desh estraineko aldiz. Zoritarrez, beste ezbehar erraldoi batek ekarri digu bengaliarren oihu mingotsaren oihartzuna, arautsi eta uholdeek lurralde hartako eremu luzea suntsitu dutelarik. Komunikabideek era guztietako albiste lazgarriak zerbitzu dizkigute tragediaren gai-

nean, gure begietara irudirik dardaragarrienak ekarriz. Aintzira bilakatu diren lur haietako animalia eta biztanleen gorpuak milaka erakutsi dizkigute; batipat TB konpainiek milurte honen amaieran daramaten norgehiagoketa eroari esker, munduko pobrerik behartsuenak Bangla Deshekoak direla jakin ahal izan du askok. Gure solidaritatea eskatu dute, zeharo birrinduta dauden bazter haietatik eta baita euren kontzientzia ixilerazi nahi duten erakundeetatik ere, kolore gzutietako gobernua barne.

Baina Bangla Deshek txiro izaten jarraituko du. Eta etiopiarrek, eta kurdo, mailar, peruar eta hainbat herrialdeetako gizabanakoek. Unean uneko laguntza soilak- garaiz heltzen zaiela suposatuz- ez du inoiz bestelakotuko lagunduaren egoera, horren gaisotasun kronikoari erabateko konponbiderik ematen ez zaion bitartean. Ekonomia sozialak ordezkatu beharko lituzke, nahita ez, ipar-mendebal ekonomiaren ohizko postulatu basatiak, guztion ongizateari zentzuzko bitartekoak ahalbidetuz.

Baina iruditzen zaidanez, bizi ari garen komunikazio eta argibidetzako aro hau ez dugu, tamalez, izpiritu-ernaldikoa. Behintzat, emaitzek ez dute itxaropentsu izateko zirrikiturik eskaintzen.

Josemari Velez de Mendizabal



**enpresa
bazkariak
eta famili bilerak**



gili gili

Iturriotz 9, Tfnoa: 79 94 57

HIRE

Liburu eta oparidenda

Iturriotz 4, Tfnoa 79 14 84



ZORIZI

**GIZON ETA
EMAKUMEAREN
MODA**

Otalora Z/g
Tfnoa: 79 20 50
ARRASATE



ZENBAKI

**Kontabilitatea
Fiskalitatea
Lana
Zuzenbidea
Juridikoa
Finantzaketa
Aseguruak**

Basabe industrialdea
Tfnoa: 79 88 75
79 75 99

ARETXABALETA

Takoloko zuloa

Takolon kamino generalera autoz irteeta tokatu bazaizu, igarriko zenion zertaz ari naizen. Kamino erdian dagoen zulotzarra eskibatzeko aurrera begira, edo San Andresetik inor ba ote datorren begira joatea beste irtenbiderik ez duzu. Zuloa ez da atzo goizeko kontua, baina inork ez du konpontze-korik egiten. Azkenean, beste edozein errepidetan ere jartzen dira ipinkiak, eta hor ere, hainbat lasterren horrelakoren bat egin beza hartarako ardura duenak.

B. B.


"Hacer el gamba" legeak iradokitako kirol berri bat

Arrasaten gertatu zen. Korrikalari fondista bat, maratoilari ona bera, goiz batean entrenatzen ari zen hiri barruko zirkuitu batean, handik egun batzuetara korritu behar zuen lekuan. Ezker aldeko galtzada ertzetik arineketan zihoanean, inori trabarik egin gabe, leku hartan zebilen ertzain batek, karreraren berotasunean ulertu ez zuen zeozer esan zion, eta bere esprintarekin jarraitu zuen. Ertzainak orduan, beste zirkunstantzia batzuetan ohizkoa ez den ardurarekin, bere atzetik joan zen

eta izkinari bira egiterakoan atera zitzaion, enboskada gisa, eta gure korrikalaria harrapatu zuen. Honek, esprintarekin nahikoa ez bazuen ere, ikusi zuen nola ertzaina hurbiltzen zitzaion deiadarka eta mehatxuka nortasun agiria eta izena exijitzen zizkion bitartean. Arnas estuaz eta bihotza 180 taupada minutuan zuelarik, ez zuen lortzen NANaren zenbakia esatea, ezta test bat egiten ari zela argitzea ere. Ertzainak mendira ahuntzekin joateko eta salaketa jarriko ziola esan zion "por hacer el gamba". Atleta honek orduan, okerrik egin bazuen barkatzeko eskatu zion, oker hori non zegoen ulertzen ez bazuen ere. Alferrik ordea. Salaketak aurrera jarraitu zuen. Gure korrikalaria, arduratuta, gauzak zihozten modua ikusirik, lagun batengana jo zuen, fondista hau ere, eta biok batera ertzaindegiko buruarengana joan ziren. Honek gertatutakoa entzun ondoren, salaketa jarri zuen agentea zela ken zezakeen bakarria esan zion.


Horrela ba, orain denok arazoa nola bukatuko den zain gaude. Gure herri honetan espaloi gainean, bi lerrotan, bi zentzutan eta izkina guztietan aparkatzen den bitartean, ertzainek, ikusten denez, ez dute beste egin beharrik "gambarena" egiten ari direnei jarraitzea besterik. Komentariorik gabe.

Eukeni Olabarrieta




Beste bat.

Beste behin, hirugarrena dagoeneko, bozketa egunaren biharamonean Arrasate Pressen ale berezia goizeko 6.30etarako kioskoetan zegoen. Dendena zekarren bezperan Mondragoen gertatutakoari buruz. Jendeak gogo handiz hartu zuen egunkari itxurako ale berezia. Asko izan dira, gainera, ahaz edo telefonoz, zorionak eman dizkigutenak. Hurrengoan ere saiatuko gara. Eskerrik asko.



Zer izan da kanpainak izan duen onena?



Angel Las Heras
(Postetxeko langilea)

Nire ustez, kanpainak errutina apurtu du. Ideiak biltzeko balio izan du, eta lotan zeuden kontzientziak esnarazteko. Zentzu horretan, botua argitu egin da, jendeak badaki gauzak zergatik egiten diren.



Nieves Baena
(Galeperraztegiko langilea)

Ez diot kasurik ere egin, beraz ez dakit.



Saioa Laskurain
(Ikaslea)

Nik uste dut gazteei begira gauza askori buruz hitz egin dela, gaztetxeari buruz esaterako.





Patxi Alkorta
(Arotza)

Ez dakit. Egia esan, kanpainari ia ez diot jarraipenik egin. Dena dela, ez dut berrikuntzarik somatu.

LENIZ

AUTO ESKOLA



GIDA-BAIMEN GUZTIAK ZURE ESKU!

ARRASATE - ESKORATZA

X. Gorosarri eta M. L. Trojaola doktoreak

Mediku espezialistak erreumatologian

Titulu nazional frantseza (Lyon-eko Unibertsitatekoa)

HEZUR, MUSKULU, ZURDA ETA GILTZADURETAKO GAIXOTASUNAK

Zaldibar 1, 1. Tfnoa: 77 00 40 ARRASATE

Memesa

79 42 22

**ZUBIZARRETA
TAILERRAK**



Gipuzkoa Etorbidea 22,
Tfnoa: 79 15 65 ARRASATE

ARTE LENIZ

koadro eta
moldurak

Leintzibar kalea 4, 79 37 64 ARRASATE

**BEHARREZKO
TELEFONOAK**

ERITETXEAK

Arrasateko Eskualde-Ospit.	79 53 00
Igualatorria	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea	
(gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua	79 90 11

GURUTZE GORRIA

Bergara	76 55 76
---------------	----------

DYA

Antzuola	76 62 91
----------------	----------

ANBULATORIOAK

Arrasate (Especialista)	77 12 64
(Txanda hartzeko)	77 03 46
Oñati	78 08 52
Eskoriatza	79 98 58
Aretxabaleta	79 74 58
Aramaio	(945) 45 51 16

ANBULANTZIAK

Gipuzkoako ambulanziaz	45 87 44
------------------------------	----------

UDALTAINGOAK

Oñati	78 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 39
Aretxabaleta	79 10 52
Eskoriatza	79 03 22

ERTZAINZA

Arrasate	79 71 99
----------------	----------

SUHILTAILEAK

Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile	
burua	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea ..	78 28 00

MATXURAK

Urak (udal zerbitzua)	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero)	79 05 81
Gasa	900 40 05 23
.....	79 78 44
.....	79 76 78

GARRAIOAK

Taxiak	79 12 22
P.E.S.A.	79 14 19

**HIRUGARREN ADINARENTZAKO
ZENTRUAK**


Iturbide Egoitza	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza	79 81 57

**KONTSUMITZAILEARENTZAKO
INFORMAZIOA**

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta	
Erabiltzaileen Elkarteak	79 87 77
KIUB-OMIC	79 51 55

MONTERRONGO LIBURUTEGIA

Monterron	77 01 05
-----------------	----------



**31
OSTIRALA**

- Zinea: Alai. "Bailando con lobos", 6 eta 10.30etan.
- Goardiako farmazia: Irizar, Erguin..

**1
LARUNBATA**

- Zinea: Alai. "Bailando con lobos", 6 eta 10.30etan.
- Deba Garaiko Txiste Txapelketa, Amaian, gaueko 10.30etan.
- Goardiako farmazia:-egunez: Amezua, Santamaina. -gauetz: Estella, Bergara.

**2
IGANDEA**

- Zinea: Alai. "Bailando con lobos", 6 eta 10.30etan.

**Kirol
Agenda**

PILOTA

Gipuzkoako pala txapelketaren barruan, Arrasate eta Donostiako taldeen arteko partiduak. Larunbatean, Musakolako Kiroldogian arratsaldeko 5etan.

MENDIA

Besaide Mendizale Elkarteak asteburu honetarako eskalada ikastaroa antolatu

- Kontzertua, Al-Andalus eta Arrasate Musikalekin, Amaian arratsaldeko 5etan.
- Goardiako farmazia:-egunez: Aurora Ruiz, Maala. -gauetz: Estella, Bergara.

**3
ASTELEHENA**

- Zinea: Alai. "Bailando con lobos", 6 eta 10.30etan.
- Hitzaldia. "Kanpo-zorra", Monterronen, arratsaldeko 7etan.
- Goardiako farmazia:-egunez: Morales, San Andres. -gauetz: Mozos, Bergara.

**4
ASTEARTEA**

- Zinea: Alai. "Bailando con lobos", 6 eta 10.30etan.
- Hitzaldia. "Marokko giza eskubideen alde", pleno aretoan arratsaldeko 7etan.

du. Bestalde datorren astean Amezket-Balardi-Uztegi mendi-ibilbidea egin nahi duenak, asteazkena baino lehen eman dezake izena Besaiden.

TXIRRINDUA

Txirrindulari elkartekoek asteburu honetan, Arrasate-Kurtzeta-Murgia-Gasteiz-Landa-Arrasate ibilbidea egiteko asmoa daukate. Irteera, goizeko 9etan, tren geltoki zaharraren aurrean.

**5
ASTEAZKENA**

- Bideo emanaldia. "Kanpo-zorra", Monterronen arratsaldeko 7etan.
- Erakusketa. "Euskal jantzi tradizionalak", Monterronen 16ra arte.
- Goardiako farmazia:-egunez: Español, Iturriotz. -gauetz: Puy, Bergara.

**6
OSTEGUNA**


- Hitzaldia. "Narkotrafikoa", Monterronen, arratsaldeko 7etan.
- Argazki erakusketa, Udaletxeko arkupetan, arratsaldeko 7etan.
- Goardiako farmazia:-egunez: Korquera, Musakola. -gauetz: Guallar, Bergara.

Internazionalismoa

• Komite Internazionalistak

"500 urte lapurretan" lema-pean, Arrasateko Komite Internazionalistek, aste honetarako kanpo-zorra eta narkotrafikoari buruzko ekintzak antolatu dituzte.

Astelehenean, arratsaldeko 7etan Monterronen kanpo-zorrari buruzko hitzaldia eskainiko da, asteazkenean berriz, gai bera landuz, bideo emanaldia. Ostegunean, arratsaldeko 7etan ere, Monterronen narkotrafikoari buruzko hitzaldia burutuko da. Asteko ekintzei bukaera emateko, ostiralean Sebero Altuben komiki bidez kanpo-zorraren erakusketa jarriko da.



• Askapena

"Marokko eta giza-eskubideak" gaia jorratzeko, Askapenak zenbait ekintza antolatu ditu datorren asterako. Asteartean, hilaren 4ean, Marokkon giza-eskubideak nola dauden den azaltzeko.

Udaletxeko pleno aretoan hitzaldia burutuko da, arratsaldeko 7etan. Ostegunean, Udaletxeko arkupetan argazki bidez erakusketa jarriko da. Ostiralean berriz, amaiera gisa, beste hitzaldi bat, preso politiko baten emaztearen eskutik Monterronen arratsaldeko 7etan.

Txertaketak

• Udalak antolatuta

Datorren astean zehar,



OMENALDIA

Jubilatuei omenaldia

Bihar larunbatez, SUDC batzordearen eskutik, herriko jubilatu guztiei omenaldia eskainiko zaie. SUDC-ek ekintza ugari antolatu ditu, biharko omenaldirako.

Goizeko 11etan, festari hasiera emateko, Arrasateko dultzaineroek kalejira egingo dute. Ondoren etxaleroen jaurtiketa eta eguerdiko 12.30etan, San Juan parrokiaren meza ospatuko da. Lore Gazteak dantza taldekoek ere omenaldian parte hartu nahi izan dute, horrela ohorezko aurrezkoa eskainiko diete jubilatuei.

Ohi denez, eguerdiko ordubietan lagun arteko bazkaria, Musakolako kiroldegian. Gehiegi nekatzen direnei gauzak errazteko, Musakolara arteko bidea egiteko autobusa jarriko da. Behin bazkaria bukatu eta gero, dantzaldia eta sari banaketa. Horrenbestez, igandeko omenaldia bukatutzat emango da.

txakurra txertatu nahi duten arrasatearrek aukera izango dute, Udalak amorrutaren kontrako txertaketa-kanpaina antolatu bait du. Kanpaina hau, hiru hilabete baino gehiago dituzten txakurrei zuzentzen zaie, eta txakur bakoitzeko 1.800 pezeta ordaindu beharko da. Salneurri horretan txertoa eta hidatidosis-aren aurkako pastilak sartzen dira.

Ekainaren 3an Gesalibar, Garagartza eta Uribarrin txertatzeko aukera izango da; 4ean, Hirigunean, Udala, Bedoña, eta Meatzerrekan; 5ean, Hirigunean, Zaldibarren eta San Andresen; 6an, Hirigunean, eta

Musakolan; azkenik 7an, Hirigunean eta Makatzenan.

Lehiaketak

• Gazteen bigarren argazki lehiaketa

Gazte Zerbitzuak antolatu ta, irailaren 27a arte Gazteen II. Argazki Lehiaketan lanak aurkezteko aukera izango da. Lehiaketan, 14etik 35 urtera arteko edozein gazte parte hartu ahal izango du, eta irabazleak 60.000 pezeta eramango ditu. Lanak irailaren 27a baino

lehen entregatu behar dira Gazte Zerbitzuan. Bestalde, urriaren 4etik 12ra bitartean Monterronen, lehiaketara aurkeztzen diren lan guztiekin erakusketa zabalduko da.

• Deba Garaiko III. Txiste Txapelketa

Bihar larunbata, gaueko 10.30etatik aurrera AEKK antolatuturik, Amaia antzokian Deba Garaiko III. Txiste Txapelketa burutuko da. Antolatuzaileek hiru sari jarri dituzte, 30.000, 20.000 eta 10.000 pezetakoak.


• Anagrama lehiaketa

Eskoriatzan, Axtrokik, euskara bultzatzen diharduen taldeak, bere ekintza eta helburu guztien adierazgarri izango den anagrama izateko, lehiaketa antolatu du. Eskoriatzarren ezarritako baldintzen artean, aipagarrienak lanak uztaillaren 15erako entregatu beharko direla eta aurkeztzen den anagraman derrigorrez Axtroki hitza azaldu beharko dela. Irabazlearentzat saria, 15.000 pezetakoa izango da.

Euskara

• Ibilaldia Gernikan

Urtero bezala, igandean Ibilaldia burutuko da. Aurtengoan, Bizkaiko ikastolen aldeko festa Gernikan izango da. Horrelako ekintzak dauden guztietan egiten duen bezala, AEDk Gernikara joateko autobus zerbitzua antolatu du. Autobusak igandean, goizeko 9.30etan, Garibaiko geltokitik aterako dira.



“ “
10a Quintana de la Serena, 1991ko maiatzaren

Auzokide agurgarria:

Datorren maiatzaren 26an udal hauteskundeak deituko dira Espainia osoan.

Lan arrazoirengatik Arrasatera bizitzera joan behar izan duen Quintana de la Serenako jende asko dago eta hortxe bertan familia osatu duzue eta zuen eguneroko bizitza egiten duzue.

Badakizue, Arrasaten, azken bi hauteskundeetan, Alderdi Sozialista bigarren indar politikoa izan dela, Herri Batasunaren atzetik, 200 botutara bakarrik.

Extremeñoa zarenez, Euskal Herrian integraturik, Bakea eta Askatasunaren aldeko zaitut. Horregatik, lerro hauek idazten dizkizut emakume gazte baten-tzako botu eske, zure eskubideak eta Arrasateko hiritar guztien eskubideak defendatzeko prest dagoen emakumea.

Nekane Iglesias, Arrasateko alkatetzarako hauta-gaia, pertsonaren funtsezko eskubideetan sinisten duzuen eta Euskal Herriak behin-betiko Bakea berres-kuratzea nahi duzuen guztiok botatu behar duzue.

Quintana de la Serenako Alkate moduan, hurrengo udal hauteskundeetan Alderdi Sozialistari botua emateko eskatzen dizut, euskal sozialistek hiritar guztien integrazioa eta konbidentzia defendatzen dituen alternatiba ordezkatzeko bait dute.

Nik neuk agurtu ahal izango zaitudalakoan, har ezazu nire agurrik adiskidekorrena.

(Iptua: Juan Bonilla Ponce, Quintana de la Serenako Alkatea)

Zer da Galtzagorriren kontu hori?



Zurichen 1953an, ume eta gazte liburuen zabalkuntzarako nazioar-teko erakundea sortu zen. Estatu espainarrean era-kunde horren delegazioak OEPLI izenarekin ezagu-

tzen denak egiten du lan. OEPLI berak, Estatuko zenbait tokitan, Madrilan, Bartzelonan eta Galizian esaterako, beste delegazio batzuk dauzka. Aipatutako toki horietan OEPLIren delegazioak dauden moduan, Euskal Herrian ere martxan jarri nahi dira.

Euskal Herrian sor daitekeen delegazioari oraindik ez diogu izenik jarri, eta ez dakigu oraindik zer izen jarriko diogun, prentsan Galtzagorriren izena agertu bada ere. Dena dela, Gazte Liburuen zabalkuntzarako Nazioarteko Erakundeko Euskadiko delegazioan Idaz-leen Elkartek, Itzultzaileen Elkartek, Liburu saltzai-leen Elkartek, eta Irakasle Eskolako Haur Liburu Min-tegiak hartuko dute parte.

Nondik atera den Galtzagorri buruzko kontua? guk uste genuen OEPLIren euskal delegazioa eratuta geneu-kala, baina gauzak ez ditugu behar bezala egin. Hortan Galtzagorri gaur egun gauza artifizia da, guri interesa-tzen zaiguna OEPLIren euskal sekzioa egitea da eta. Beraz, aurrera egiteko estatutu batzuk eratu eta Jaurleri-tzan aurkeztu behar ditugu, onartuak izan daitezten. Oraindik ere, eginbeharraren fase horretan gaude, prentsak gauzak eginda bezala eman baditu ere.

Nerea Alzola,
Eskoriatzako Irakasle Eskolako irakaslea.




Parques y Jardines

PARKE ETA LORATEGIEN
SORKUNTZA
LORAZAINTZAKO
MANTENIMENDUA ORO HAR
LANDARE-BIRSORKUNTZA
HIDROEREINTZAZ

Casa-Torre kalea. Tfnoa:94-681 90 82 ABADIÑO (BIZKAIA)





Hauteskunde-gau zoroan

ETBk zortzi zinegotzi eman Arrasateko sozialistei

Gaueko 10.10 izango ziren. ETBko esatariak Arrasateko emaitzak %100ean zenbatu eta gero, PSOEek zortzi zinegotzi irabazi zituela esan zuen. Berehala, Casa del Pueblotik txapliguak jaurti ziren, berri ona ospatzeko.

Arrasateko udaletxean ordea, oraindik datu guztien kontaketa egin barik zegoen. Nahasmendu egoera horretan asko ATB ikusten jarri ziren, argi bila. 29 boturen aldearekin, HB izan zen irabazle.

Horrelako egoeratan normala izaten

den moduan, PSOEek zenbait inpugnazio jarri omen ditu, botu diferentzia hori ezabatu nahian. Inpugnaziook argitu ostean, Alkatea aukeratzea falta izango da, ekainaren 15erako. Bi bozketa egingo dira zinegotzien artean. Lehen bueltan irabazteko, koalizioz edo bakarka, erabateko gehiengoa (11 zinegotzi) behar da. Hori gertatuko ez balitz, bigarren itzulian alkatetza botu gehien eskuratu dituenarentzat.


Zinegotzi-banaketa iazko hauteskundeetatik ateratakoaren berdina da.

◆ Gatzagan 250 bizilagun baino gutxiago daudenez (239), maiatzaren 26an zerrenda irekiak erabili ziren botua emateko orduan. Pertsoneri eman zieten botua, ez partiduei. Independentez osatutako zerrenda bakarra aurkeztu zenez, kandidate turako bostak atera ziren irabazle. Alkate-gaia **Eugenio Otxoa Gerra** zen, jarduneango alkatea.

◆ Badirudi **Quintana de la Serena** (Extremadura) eta **Montillako** (Andaluzia) alkate sozialistek jatorriz herri horietako arrasatearrei bidalitako eskutitzak (ikus *Besteek esana*) Mondragoen bertan inprimatu zirela. Gutun biak berdin-berdinak dira, herrien izenak eta izenpetzaileen sinadurak ezik. Mondragoen idatziak ote?

◆ Arrasatek bost ordezkari izango ditu Gipuzkoako Batzar Nagusietan. Lau Deba-Urola barrutian hautatuak. Badago boskarren bat, Do-

nostialdean aukeratua: **Jesus Urrejola**, 42, HBko zerrendan 3.a Etxaluzen jaio zen EPPn Maisutza elektrikoa ikasi ostean, Elman eta Coprecin egin zuen lan. Azken zazpi urteotan Donostian bizi da.



Jesus Urrejola (HB)

Construcciones ARRASATE S. L.

Udalpe 5, Etxabehea. Erguin auzoa. Tfnoa: 79 04 46 ARRASATE

udal hauteskundeak



Goizeko hamaikak laurden gutxi ziren, Ferixalekuan. Gurasoak botua ematera sartu ziren bitartean, aitajauna biloba zaintzen gelditu. Kontuak egin eta umea ezin gustorago. Maitasunak adinik ez.



Eguraldi ona aprobetxatuz, asko izan ziren hauteslekuetara hurbildu ziren jubilatutak. **Julian Errasti**, 81, Ferixalekura joan zen. Ertzain batek lagundu zion eskilaretan. Julianek, eskerronez, txikito bat hartzera gonbidatu zuen ertzaina, baina hark ezin. **Carmen Castilla**, 80, konpainia onean joan zen Santamainako hauteslekura. **Ana Castro**, 24, eta **Anabel Ramos**, 20, bilobek lagundu zioten. Botua emateko prest zegoela, nortasun agiria etxean ahaztu zuela gogoratu. Ez zen gelditu, horratio, botua eman barik.

Beste askoren moduan, Santa Agedako monjak botua ematera jaitsi ziren igande goizean. **Teofila Oria**, **M. Luisa Martinez** eta **M. Josefa Otxoa** autoan elkarrekin etorri ziren Uribarriarino. Argazkia ateratzerakoekin, gainontzekoen desberdinak ote ziren galdetu zuten.

KiDE

Paperdenda eta jostailudenda

Erguin 5, Tfnoa: 79 25 77 ARRASATE

LILURA


-k
zeure moda
diseinatu eta sortzen
laguntzen dizu

Zerkaosteta 5, behea.
Tfnoa: 79 89 72 ARRASATE

Agustin Agirrerri,

San Andresen

interbentore egotea tokatu zitzaion. Eguna luze joango zela jakinda eta ahultasunean ez erortzeko, goizeko hamarrak aldera ogitartekoari gogo handiz heldu zion. Une horretan Agustinen mahaikideek jaten ez bazeuden ere, igandean antzerako dieta egin zutenak asko izan zirela esan behar da.



Igandean normala izan ez bazen ere, une batzuetan hauteskunde mahaien aurrean, jendeak itxaron beharra ere izan zuen, egurdiko orduetan batez ere. Mahaikideek zeudenek esan zutenek, jende gehien meza ostean hurbildu zen. Beharbada, aurreko aipamena eritzi hutsa izanik, ez da oso esanguratsua izango, baina horren arabera pentsa daiteke oraindik jende gehiena mezetara joaten dela.

Usteak uste

Igandeko udal hauteskundeetako emaitzak denon begi bistan daude. Orain ikusteko dago ea noren eskuetara joango den alkatetza.

Legeak bi pobilitate aurrakusten ditu: koalizio bidez gobernatzea edo bakarka. Emaitzak eta inork ez duela HBrekin batera koaliziorik egin nahi kontuan hartuta, hauek dira ekainaren 15erako zenbait hipotesi:

1. PSOE eta EAJk koalizioa osatzea. 11 zinegotzirekin egin ahal dute. Botu gehien jaso dituen PSOE denez, alkatetza izango genuke.

2. Lehen hipotesiarekin segituz, EAJk ez luke Mondragoeko alkatetza sozialisten eskuetan uzterik nahi eta, zerbaiten truke, Alkatea Loiti izatea.

3. EAK eta Eek Loitiren izena jar lezakete mahai gainean eta behartu PSOE, ezeren truke, botua jeltzaleari ematera, edo...

4. Besteak ados jarri ez direlako, Alkatea HBkoa izatea, botu gehien partidu horrek irabazi bait zuen.

Xabier Zubizarreta, Nekane Iglesias eta Jose Mari Loiti, hiru izen aulki bakarrerako.

JOXE ARANZABAL

- LARAN -

ENMARKAZIOAK • LAMINAK • MARGOAK

Biteri Etorbidea 11, ARRASATE



**SAMEGO
GARBIKETAK**

Urriburu 24,
Tfnua: 79 70 39
ARRASATE



Prentsaurrekoan Fagorreko arduradun nagusiak bildu ziren

Fagor gehiago irabaztekotan zen

Nazioarteko egoerak eragin aurrikuspenak jaitsi

Joan den asteazkenean Fagorren burututako prentsaurrekoan, Fagor taldeko arduradunek, Javier Mongelos eta Jose Mari Herrastik besteak beste, iazko urteari zegokion balantze ekonomikoa egin zuten. Han adierazi zenez, Fagor taldeak 1990ean guztira 1.513 milioi pta. irabazi zituen.

Prentsaurrekoan esandakoaren arabera, 1990. urtea, estatu eta nazioarte mailan, oso urte zaila izan zen, aurrez espero zena baino txarragoa. Fagorreko arduradunen hitzetan, Golkoko krisiak eragin zuzena izan zuen taldeko egoera

ekonomikoan. Zentzu horretan, 1989koak %23an gainditu baziren ere, salmentak uste baino gutxiago hazi ziren. 92.170 milioi saldu ziren, baina kontuan hartu behar da Victorio Luzuriagaren aportazioa.

Kanpora bidali diren produktuei dagokienez, %18ko igoera eman omen zen, guztira bide horretatik 26.805 milioi lortuz.

Aurrera begira, Fagorri nazioarteko maila ematea litzateke erronkarik handiena. Epea 1993ko europar merkatu bakarra.

□ Epaiketa hiru arrasatearri

Astelehenean Luis Mari Azkargorta, bere anaia Aitor, eta Jose Ignacio Gallego arrasatearrak, epaituko dituzte Madrilan. ETAkideak izatearen akuzaziopean, bakoitzarentzat zortzi urtetako gartzela zigorra eskatzen du fiskalak. Epaiketara joan nahi dutenek, igandean gaueko 2etan autobusa zai izango dute Arbolapetan.

□ Goardiako farmaziak

Goardiako farmazien komarkalizazioa dela eta, datorren astelehenean Arrasate eta Bergarako alkateek, Gipuzkoako botikarioen elkartereko kideekin eta Arrasateko botikarioen ordezkariekin bilduko dira. Badirudi asteleheneko bileran botiken arazoari irtenbidea aurkituko zaiola, arazoan zer ikusia duten guztiak bilduko dira eta.



□ Aparkalekuak

Orain arte aurrera ez badira atera ere, Udalak Cordoba y Oro eta Obenerrrekan aparkalekuak egiteko asmoari ez dio ezetzik eman. Aurtengo aurrekontuan, obra horietarako pezeta bateko aurrekontu sinbolikoa agertzen da.

JAIOTZAK

Garcia Petralanda, *Aitor*. Maiatzaren 23an.
Lorenzo Axpe, *Eider*. 23an.
Lakunza Perurena, *Maddi*. 23an.
Díaz Mavajo, *Ismael*. 24ean.
Nuñez Santos, *Leire*. 24ean.
Sanchez Melgar, *Keyla*. 25ean.

SEGURTASUN-INJINERUTZA




Zure denda, lantegia, etxea, etab. **BABESTEN** ditugu **LAPURKETA** eta **SUTEEN** aurka
Legutianoko atea 35, Tfnoak: 26 34 77 eta 26 33 44 GASTEIZ

VE ECUADOR

Kontzeziño 2,
Tfnoa: 79 14 06
ARRASATE

beatriz
oinetakoak eta
poltsak

Erdiko kale 11, Tfnoa: 79 14 33
ARRASATE



Uharkapek oraindik zer esan ugari ematen du

Irgalak Azatzokoei erantzun

Enpresak lanak bukatzeko asmoak dauzka

Uharkapeko etxebizitzaren arazoa dela eta, Irgala enpresak, etxebizitzaren egileak, Azatza auzokoei joan den astean idatzitakoari erantzuteko idazkia kaleratu dute. Irgalako enpresakoei aditzera ematen dutenez, Uharkapen arau subsidiarioek dioten guztia betetzeaz gain, Udalak eta Aldundia onartuta, lanak egiteko baimena daukate.

Baimenen kontua alde batera, Irgalak, horma sendotzeko lanak Euroestudios enpresari enkargatutako ikerketaren arabera egiten ari direla dio. Idazkiak diotenaren arabera, Euroestudios

enpresaz aparte, Cantabriako Unibertsitateko Geoteknika saila ere, horma sendotzeko burutzen ari diren lanei jarraipen zuzena egiten ari zaio, Irgalaren kontura.

Idazkiaren azken aldera Irgala enpresakoei, zentzugabekotzat hartzen dute Azatza auzoko zenbait biztanlek obrak gelditzearen alde hartu duten jarraia.

Bukatzeko, Irgala enpresak dioenez, hasitako lanari aurrez pentsatutako amaiera emateko ahalegin guztia egingo omen du.

San Juanetarako egitaraua prest

San Juanak ekainaren 22ra arte ez badira hasiko ere, koadrilek, SUDCek eta Udalak prestatua dute dagoeneko egitaraua. Aurtengo San Juanak ekainaren 23tik 26ra bitartean burutuko dira, eta epe labur horretan 12 milioiko aurrekontua gastatuko da. San Juanak aipatutako egunetan burutuko badira, 15 eta 16rako ere, berotze aldera, prestatu dira gauzaren batzuk.

Egitarau osoa hain toki laburrean sartzea rekord berria ezartzea litzatekeenez, aipamen solteak egin behar: Zortziko ikuskizuna, umeen danborrada, haurren eguna, pintura lehiaketa, Mikel Lāboaren kantaldia, inguruko musika banden kontzertuak... eta ahal bada zezen entzierroak. Dirudienek, oraindik entzierroena asmoa besterik ez da, ez bait da zezen plazarik aurkitu.



LORAMENDI



KIROLAK

DAKAR 170

IGLOO FASHION



12.900,-



9.900,-

**INTER
SPORT**
Shops for Winners

**KAMPING, OINETAKOAK,
HONDARTZA GAIAK...
DENA KIROLA EGITEKO**

LOREA

Oinetakoak
eta poltsak

Paz 9, Tfnoa: 25 66 32

GASTEIZ


ARAMAIO okindegia

Maisu Guridi 3,
Tfnoa: 79 36 46

• Zotz-Motzek lau sari banatuko ditu astero, orri honetan agertuko diren galderei ondo erantzuten dietenen artean. Moztu, bada, txartelak eta erantzunak Arrasate Pressera bidali.

• Uztailaren 16an, Zotz-Motzen sari handiak zozkatuko dira: Renault Clio bat eta bi pertsonarentzako bidaia Kanariar Iletara.


Zozketa handi honetan parte hartzeko txartelak Zotz-Motzen babesleek banatuko dituzte euren bezeroen artean, erosketekin batera.




• ANSCO argazki makina bat.

IRABAZLEAK

Argazki makina:
ANA ZUBILLAGA
 Telefonoa:
GOIO LAYANA
 Erlojua:
JOSU
JUAN-LLODIO
 Afaria:
ITZIAR OLABE




• HANDY telefono bat.



• CASIO erloju bat.

Zotz




Iturriotz kalea 8, Tfnoa: 77 04 01
 ARRASATE


Errikite

SOINUA • BIDEOA • TB • KOMUNIKAZIOA

Otalora 25, Tfnoa: 77 13 20
 ARRASATE



Maalako Errabala 5, Tfnoa: 79 19 01
 ARRASATE



Uharkapek oraindik zer esan ugari ematen du

Irgalak Azatzokoei erantzun

Enpresak lanak bukatzeko asmoak dauzka

Uharkapeko etxebizitzaren arazoa dela eta, Irgala enpresak, etxebizitzaren egileak, Azatza auzokoei joan den astean idatzitakoari erantzuteko idazkia kaleratu dute. Irgalako enpresakoek aditzera ematen dutenez, Uharkapen arau subsidiarioek dioten guztia betetzeaz gain, Udalak eta Aldundia onartuta, lanak egiteko baimena daukate.

Baimenen kontua alde batera, Irgalak, horma sendotzeko lanak Euroestudios enpresari enkargatutako ikerketaren arabera egiten ari direla dio. Idazkiak diodenaren arabera, Euroestudios

enpresaz aparte, Cantabriako Unibertsitateko Geoteknika saila ere, horma sendotzeko burutzen ari diren lanei jarraipen zuzena egiten ari zaio, Irgalaren kontura.

Idazkiaren azken aldera Irgala enpresakoek, zentzugabekotzat hartzen dute Azatza auzoko zenbait biztanlek obrak gelditzearen alde hartu duten jarraera.

Bukatzeko, Irgala enpresak dioenez, hasitako lanari aurrez pentsatutako amaiera emateko ahalegin guztia egingo omen du.

San Juanetarako egitaraua prest

San Juanak ekainaren 22ra arte ez badira hasiko ere, koadrilek, SUDCEk eta Udalak prestatuta dute dagoeneko egitaraua. Aurtengo San Juanak ekainaren 23tik 26ra bitartean burutuko dira, eta epe labur horretan 12 milioiko aurrekontua gastatuko da. San Juanak aipatutako egunetan burutuko badira, 15 eta 16rako ere, berotze aldera, prestatu dira gauzaren batzuk.

Egitarau osoa hain toki laburrean sartzea rekord berria ezartzea litzatekeenez, aipamen solteak egin behar: Zortziko ikuskizuna, umeen danborrada, haurren eguna, pintura lehiaketa, Mikel Laboaren kantaldia, inguruko musika banden kontzertuak... eta ahal bada zezen entzierroak. Dirudienek, oraindik entzierroena asmoa besterik ez da, ez baita zezen plazarik aurkitu.



LORAMENDI




KIROLAK

DAKAR 170

12.900.-

IGLOO FASHION.

9.900.-



**INTER
SPORT**
Shops for Winners

**KANPING, OINETAKOAK,
HONDARTZA GAIAK...
DENA KIROLA EGITEKO**

LOREA

Oinetakoak
eta poltsak

Paz 9, Tfnoa: 25 66 32

GASTEIZ


ARAMAIO okindegia

Maisu Guridi 3,
Tfnoa: 79 36 46

• Zotz-Motzek lau sari banatuko ditu astero, orri honetan agertuko diren galderei ondo erantzuten dietenen artean. Moztu, bada, txartelak eta erantzunak Arrasate Pressera bidali.

• Uztailaren 16an, Zotz-Motzen sari handiak zozkatuko dira: Renault Clio bat eta bi pertsonarentzako bidaia Kanariar Iletara.


Zozketa handi honetan parte hartzeko txartelak Zotz-Motzen babesleek banatuko dituzte euren bezeroen artean, erosketekin batera.



• ANSCO argazki makina bat.

IRABAZLEAK

Argazki makina:
ANA ZUBILLAGA
 Telefonoa:
GOIO LAYANA
 Erlojua:
JOSU
JUAN-LLODIO
 Afaria:
ITZIAR OLABE



• HANDY telefono bat.



• CASIO erloju bat.

Zotz




Iturriotz kalea 8, Tfnoa: 77 04 01
ARRASATE

Erikite

SOINUA • BIDEA • TB • KOMUNIKAZIOA

Otalora 25, Tfnoa: 77 13 20
ARRASATE



Maalako Errabala 5, Tfnoa: 79 19
ARRASATE

Motz

LEHIAKETA

GALDERA

Ze
auzotan
dago
Biteriren
eskultura?

Izena:

Abizena:

Telefonoa:

• Bidali erantzuna eta zure datuak
Arrasate Pressera: Azoka Kalea 1.



• 2 lagunentzako AFARIA.



• KANARIAR IRLETARA
2 lagunentzako bidaia
astebeterako.



• Renault CLIO auto bat.
(F.F)



KATa IDE
ARRASATE

Kataide poligonoa, Tfnoa: 79 60 10
ARRASATE



Baskotour
BIDAIAK

Maixu Arano 2, Tfnoa: 79 32 22
ARRASATE




MECA
tailerrak

Araba Etorb. z/g, Tfnoa: 79 50 12 / 79 52 1 2
ARRASATE



— ▲ —
“Egizu lan, baina seguru” lemapean kanpaina ugari bultzatu dira. Dirudienez, argazkian agertzen den emakumeari ez zaio kanpaina horien oihartzunik iritsi. Kristalak garbitu behar eta, ez zuen eragozpenik izan leihoaren bestaldean jartzeko. Batzuentzat segurtasunak izango du garrantzi handia, argazkiko emakumearentzat berriz, garbitasunak.



— ▲ —
 Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate, Oñati eta Antzuolako euskara taldeetako ordezkariak bildu ziren AEDn joan den asteartean, **Txumai Iturria**, *Egunkariako* partaidearekin. Txumai baikor ageri zen *Egunkariak* gaur egun bizi duen egoeratik, bere ustez aurrez egindako prebisioak gaudituta zeuden eta. Txumaiak zioenez, *Egunkariak* egunero 15.000 ale kaleratzen ditu.



— ▲ —
 Jakinaenez, hauteskunde kanpaina Arrasate Pressek Arrasateko alkategaien segimendu zuzena egin du. “*Hona hemen...*” izeneko saila irakurri duten asko harritu egin dira marrazkien kalitateaz. Nor izango marrazki horien egilea? **Leire Zurikarai**, 19, Baionan jaioetako arrasatearra. Injinerutza egiteko kurtso prestatzailea ari da egiten Eskola Politeknikoan. Dagoeneko hasi zaizkio enkarguak heltzen.

LASAGABASTER

JANTZIDENDA

Bertan izango duzu beti modako gauzarik onenen aukera zabalena

Zerkaosteta kalea 1 eta 2, Tfnoak: 79 27 27 / 79 13 55 ARRASATE

San Juanetako kartel lehiaketan, aurten inoiz baino parte hartzaile gehiago aurkeztu dira. Guztien artean

Estibaliz

Ormaetxeak egin zuenari eman dizkiote lehen sariko 50.000 PTak. Udaleko Kultura Batzordean adierazi zutenez, aurkeztu diren kartelen maila ez omen da oso handia izan, asko umeek egindakoak izan dira eta. ►



txutxumutxuak




● **Amala Mendikute**, 32, musakolarra Mondragoeko atzeratu eta elbarri psikikoen lehendakaria da. Bergarako eskola berezian ikasi zuen eta orain Ofiatio Beharzana enpresan egiten du lan. Jai antolatzaile eta ezinduen laguntzaile sutsua.

Antton Perez de Calleja, 48, zarautztarrak Eusko Jurlaritzak egin asmo duen euskarazko egunkariaren azterketa ekonomikoa egin du, Jabier Irigoienekin batera. Anttonek Lan Kide Sustaketan egin zuen lan. Idiazabal jatorrizko izendapena eta Artzai-gazta taldeko lehendakaria. Uritte baserrian bizi da.

● **Gaizka Aranegi**, 14, arrasatearrak Espainiako Judo Txapelketan boskarren postua lortu zuen 78 kilotik beherako kategorian. Horretaz gain, Euskadiko bigarrena izan zen. Gaizkak bost borrokaldi egin zituen eta hirutan irabazi. Estatuko txapelketako final-laurdenetaraino iritsi zen.

◀ **Marl Jose Gonzalez, Kristina Rojo eta Elena Letona**, Arrasateko

Baskotoureko bulegoan egiten dute lan. Jakina denez, Baskotour asteroko Zotz-Motz lehiaketako antolatzaileetarikoa bat da, nahiz eta 106. alean, geure erruz, argazkia egitera beste agentzia batera joan. Beraz, jakin ezazue Zotz-Motz lehiaketako bidaia Baskotourek oparitzen duela.



ERRASTI KRISTALDEGIA

**Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
akzesorioak**

Olarte kalea 47, behea Tfnoak: 79 22 55 79 14 25

ITSASKI

**arrandegia
arrain freskoa
eta jaki izoztuak**

Urbe Auzoa
Arrasate. 79 95 94




Zurgin Kantoi, 2

Tfnoa: 79 20 04

ARRASATE

BONBOIAK



FRUITU LEHORRAK

Otalora 2, ARRASATE

Etxeko animaliak gaisotzen direnean

Gizakiok ondo sentitzen ez garenean sendagilearen kontsultara joaten garen moduan, animaliek askotan arazoak izaten dituzte. Horrelakoetan zer egin? Bada, gizakiok egiten duguna, sendagilearengana joan.

Lau urte bete dira Humberto Nogueira albaitariak Altamiran, animalientzako klinika ireki zuenetik. Norbaitzuk beste motatako animaliak izango badituzte ere, Humbertori eramaten dizkion bezerorik onenak txakurrak eta katuak dira: hau da, gizakiak betidanik laguntzat izan dituen animaliak.

Gaisotasun arruntak

"Ekartzen dizkidaten animalietatik -dio Humberto Nogueira albaitariak- %80a txakurrak dira eta gainontzeko %20a katuak. Batzuetan, oso gutxitan, egia esan, dortoka edo hamsterren bat ere ekartzen didate, baina horiek oso kasu arraroak dira. Kasu horietan, kontsulta kobratu ere ez da egiten, erabili beharreko tratamenduak, animalia bera baino gehiago balio duelako".

Gizakiak balira bezala, animaliek ere sendagilearen beharra izaten dute. Zentzu

horretan, sabeleko arazoak, azalekoak eta zauriak omen dira animalien artean gaisotasunik hedatuena. Humbertok diotenaren arabera, uda hurbiltzen ari den garai hau, azaleko gaisotasunak eta zauriak hedatzeko daitezen bereziki arriskutsua da, animaliak otzal jartzen diren garaia da eta.

Eguneroko gaisotasunez gain, noizbehinka Altamirako klinikara kasu arraroak ere iristen dira, eta orain arte, kasu arraroena duela zortzi hilabete gertatu omen zen. "Txakur bati, irensten zegoen behi-hezurra masail-hezurrean tratatu zitzaion. Hori gertatzea ia ezinezkoa bada ere, hurren-

go egunean beste txakur bati gauza bera gertatu zitzaion".

Altamirako klinikan, umeak omen dira txakur eta katuen dinamika apurtzen dutenak, txoritxo, uso, hamster, dortoka eta antzerako animalia zaurituak eramaten dituzte eta. "Behin ume bat etorri zitzaidan, ea bere dortokak zer zuen jakin nahian, ez bait zen mugitzen. Dortoka hilda zegoen, gutxienez pare bat egunetik".

Nola zaindu?

Gaisotasunak eta zauriak, gizakie zein animalieengan, ekidin ezinak dira, baina arriskua ikaragarri jaitsi daiteke animaliak behar bezala zainduz gero. Humberto Nogueiraren ustez, salbuespenak dauden arren, jendeak orokorrean animaliak ondo zaintzen ditu. "Animalia ondo zaindu behar da, ez txabola baten sartuta eduki. Behar bezalako elikadura eman, ahalik eta garbien eduki, eta kasu egin. Gainera, kontuan



Leví lasai egon zen txertoa jarri ziotenean.

hartu behar da txakurren gaisotasun gehienak giza-kiak ere harrapa ditzakeela, hortaz garrantzi handia dauka animaliak behar bezala zaintzeak".

Animalia gustora bizi dadin, eta berarekin inguru-koak ere, lehenik animaliekiko interesa izatea ezinbestekoa omen da. Asko hitz eginda animalia baserrian ala etxebizitza normal batean egon behar ote den. Aurrekoa, Altamirako albaitariak eztabaida antzutzat dauka, bere ustez inportanteena ez bait da animalia non dagoen, nola dagoen baizik. "Txakurra mendira eraman eta oso gustora ibiltzen da, baina benetan gustoren etxean egoten da, maitatua sentitzen bada behintzat".

Prebentzioaren beharra

Seguruenek, behin baino gehiagotan batek baino gehiagok amorraren aurkako txertaketei buruzko zerbait entzun edo irakurriko zuen. Orain bi urtera arte amorraren aurkako txertaketa egitea beharrezkoa izan da. Ordutik hona jabeen esku utzi dute. Altamirako albaitariaren ustez, animaliak urtero txertatzen behartzen zituen legea, beharrezkoa zen amorraren arriskurik ez izateko.

Txertaketa kanpainak alde batera, eutanasiarekin ere lana izaten da Altami-



Batez ere, txakurak dira Altamirako bezero.

ran. Albaitariak dioenez, hamabostean behin pare bat txakur eramaten bait dizkio- te akatu ditzan, "jabeek etxetik aldatzea, txakurra zaharra izatea, edo nahi gabeko txakur kumeak iristea

izaten dira, txakurra akatze-ko arrazoi normalenak".

Ehiza-txakurak nagusi

Hasieran esaten zenez, Altamirako klinika bi-

sitatzen duten bezero arrun-tenak txakurak eta katuek dira. Gaian zertxobait sakondu eta gero, Arrasaten gehienbat ehiza-txakurak daudela jakin daiteke, "ehizarako trebetasuna galtzen dutenean kartutxorako kandidato handienak" Humberto Nogueiraren hitzetan. Horrekin konformatu barik gehiago galdetuz gero, Arrasaten dauden txakur moten sailkapena egitea ere lortu daiteke: setter irlandarrak, pastore alemanak, pekinesak, eta collie-ak.

Txakur jabeak, normalean pertsona arruntak dira. Dena dela, noizbehinka, baita Arrasaten ere, gauza arraroak ikusten dira, jertsea edo galtzerdiak jantzitako txakurak esaterako. "Horrelako gauzak batez ere, txakur txikiekin eta adineko pertsonekin gertatzen dira, bakartasun arazoak dituzten pertsonekin. Harreman berezia sortzen da".

Levi txertatzen

Modesto Romeo eskoriatzarraren Levi collie-ak hiru urte dauka. Amorraren aurkako txertaketa egitera behartuta ez badago ere, Modesto Romerok, txakurra urtero eramaten dio albaitariari txerta dezan. Badirudi Levi berak ere, albaitariaren klinikan sartzen denean badakiela zertara doan, urduri samar jartzen da, eta harantz eta honantz mugitzen da. Dena dela, Levi txakur lasaia da, albaitariak besoetan hartu eta jasotzen duenean, mugitu ere ez da egiten. Albaitariak txertoa prestatu dezan zain dagoela, Leviri mahaitik jaisteko gogoia nabaritzen zaio, baina Modestoren hitz leunek lasaitu egiten dute.

Badator albaitaria, xiringa eskuan duela. Une batean Levi txertatu du, begira gaudenoi ia konturatzeke astirik eman barik eta txakurak zaunkada bat ere egin gabebarik. Txertoa jarri eta gero, masaia batzuk sartutako, eta listo.

**AUTO
ESKOLA**

ARRASATE

7etatik 8etara klase teorikoak

Olarte kalea 30, Tfnoa: 79 89 89 ARRASATE

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA ZURE ZERBITZURAKO



Gipuzkoako Foru Aldundia

Ondo aterako da.

LABURPENA:
Tomey Auroraren aita hiltzera doa, haren herentzia eskuratu asmoz, baina hilda aurkitzen du...

4. atala



Bai, Tomey. Agurea hilda dago. Neuk garbitu dut, eta lasai gainera.



Aspaldi neukan borobildua plan hau, baina, norbait behar nuen hilketaren errua leporatzeko. Sentitzen dut, Tomey, pertsonarik egokiena zeu zinen...




Mutil ona bai, baina inuxente samarra ere bai. Ez duzu gehiegi sufrituko Tomey.

Ez zara gai izango, Aurora...



Moztu! Nahikoa da!
Baina ze demontre ari
zarete? Aurreragi ho-
rrekin ez zenuke inor
engainatuko Patxi,
sinestu egin behar
duzu egiten ari zaren-
a!
Sinestu!



Indarberritu den lehoi arrasatearra



■ Lehoiak normalean urte asko hartzen baditu ere, Arrasateko lehoi honek 61 bete ditu eta indarberriturik beste hainbeste, behintzat, hartzea nahi lituzke.

• 1929.ean **RONEO**k, hizkuntza ingelesa medio, bulegoetarako altzariak egiteari ekin zion. Bizkor eta indartsu bizi izan da orain arte. Eta etorkizunean berdintsu jarraitzeko indarberritze sasoi heldu zaio.

• 1990. urtea garrantzi handikoa da **RONEO**-rentzat, planta guztiz berria zabaldu du Arrasaten, 2.900 m² koa, azkenengo teknologia berriko makinak, pintura tresna eta CADa instalatu dituztelarik.

• Diseinuan ere aldaketa nabari egiten dihardu, produktu berrietan sartzen, aukietan batez ere, pertsonala hezitzen ari da, eta komertzializazio sarea finkatzen. Sasoi batean teknologia inportatu bazuen ere orain produktuak esportatzen ditu.

RONEO indarberritu da, Arrasate ere bai.

RONEO UCEM

Bulegoetarako Orotariko Hornidura Ingenieritza

ASTELEHENA

ASTEARTEA

ASTEAZKENA

OSTR



3

- Hitzaldia: Kanpozorra. Antolatzaile Komite Internazionalistak. Monrerronen. 19.00etan.
- Goardiako farmazia. Egunez: San Andres. Gaez: Mozos (Bergara).

4

- Hitzaldia: Marokko: giza eskubidearen alde. Askapenak antolatuta. Pleno aretoan. 19.00etan.
- Goardiako farmazia. Egunez: Ferrerias. Gaez: Camacho (Bergara).

5

- Bideo emanaldia: Kanpozorra. Antolatzaile: Komite Internazionalistak. Monrerronen. 19.00etan.
- Erakusketa: Euskal jantzi tradizionalak. Monrerronen. 16ra arte.
- Goardiako farmazia. Egunez: Iturriotz. Gaez: Puy (Bergara).

- Hitzaldia: ...
- Komite Internazionalistak. Monrerronen. 19.00etan.
- Argazki erakusketa. Askapena. Uzkurpe. 19.00etan.
- Goardiako farmazia. Gaez: Gual...

10

- Goardiako farmazia. Egunez: Ferrerias. Gaez: Camacho (Bergara).

11

- Goardiako farmazia. Egunez: Iturriotz. Gaez: Puy (Bergara).

12

- Goardiako farmazia. Egunez: Musakola. Gaez: Guallar (Bergara).

- Goardiako farmazia. Gaez: Estela...

17

- Goardiako farmazia: Iturriotz.

18

- Goardiako farmazia: Musakola.

19

- Goardiako farmazia: Erguin.

- Liburu aurkezpen liburua. Monrerronen. 19.00etan.
- Goardiako farmazia...

24

- SAN JUAN EGUNA.
- Goardiako farmazia: Musakola.

25

SAN JUAN BAIKAK

- Antzerkia: Tarima taldea. Canal T.V.T. Monrerronen aire zabalean. 22.30etan.
- Goardiako farmazia: Erguin.

26

- Goardiako farmazia: Santamaina.

- Goardiako farmazia...

OSTUNA OSTIRALA LARUNBATA IGANDEA

5

OSTIRALA

LARUNBATA

IGANDEA

1


2

- Eskalada ikastaroa: Antolatzailea: Besaide M. E.
- Deba Garaiko Txiste Txapelketa. AEKk antolatuta. Amaian. 22.30etan.
- Pala: Musakolan. 17.00etan.
- Goardiako farmazia. Egunez: Santamaina.
- Gauetz: Estella (Bergara).

- Ibilaldia 91: Autobusean AEDrekin.
- Mendi irteera. Anboto: Antolatzaile: Besaide M. E.
- Kontzertua: Al Andalus-Arrasate Musikal. Amaian. 17.00etan.
- Goardiako farmazia. Egunez: Maala.
- Gauetz: Estella (Bergara).

6

7



8

9


- Erakusketa: Kanpozorra. Antolatzailea: Komite Internazionalista. Sebero Altuben.
- Hitzaldia: Antolatzailea: Askapena. Chistine Serfaty marokkiarra. Montterronen. 19.00etan.
- Zinea: "Quadrophenia" Amaian. 22.30etan.

- Rocio erromeria: Antolatzailea: Al Andalus. Udalan.
- Antzerkia: "Boxtrof". Amaian. 22.30etan.
- Goardiako farmazia. Egunez: Maala.
- Gauetz: Mozos (Bergara).

- Mendi irteera: Antolatzailea: Besaide M. E. Amezketeta-Balardi-Uztegi. Egun osokoa.
- Kontzertua: Arrasate Musikal. Albina Madinabeitiaren omenez. Amaian. 12.30etan.
- Goardiako farmazia. Egunez: San Andres.
- Gauetz: Mozos (Bergara).

13

14



15

16

- Zinea: "Los chicos estan bien". Amaian. 22.30etan.
- Goardiako farmazia. Egunez: Maala.
- Gauetz: Mozos (Bergara).

- Umeen danborrada.
- Antzerkia: Zortziko. Euskal dantzen ikuskizuna. Kiroldegian. 22.00etan.
- Goardiako farmazia. Egunez: San Andres.
- Gauetz: Camacho (Bergara).



- Haur dantzanen eguna.
- Goardiako farmazia: Ferrerias.

20



21

22

23

- Zinea: "Bird". Amaian. 22.30etan.
- Goardiako farmazia: San Andres.

- Kantaldia: Mikel Laboa. Amaian. 22.30etan.
- Goardiako farmazia: Ferrerias.

- Gimnasia erritmikoa: Kiroldegian. 12.00etan.
- Goardiako farmazia: Iturriotz.

27



28

29

30

- Zinea: "La roquera". Amaian. 22.30etan.
- Goardiako farmazia: Ferrerias.

- San Pedro eguna. Eskoriatzako jaiak.
- Goardiako farmazia: Iturriotz.

- Goardiako farmazia: Musakola.



ARRASATEko UDALA

Kultur eta jai-ekintzetan laguntzeko 3 langile aldi baterako kontratatzeko oinarriak

■ Eginkizunak

- Amaia Antzokian eta udaleko beste barruti batzuetan leihatila, atezaintza eta jendea gidatzeari dagozkion lanak.
- Materialen zamaketa, antzokiaren prestaketa, eta orokorrean, kultur eta jai-ekintzak atontzen eta aurrera eramaten laguntzea.

■ Kontratuen izaera

Kontratuak, hasera batean 6 hilabetekoak izango dira, egun zatiz modalitatean, urte bateraino luza daitezkeelarik; eta Udalak ezarritako kultur eta jai-programazioaren arabera, lanjardun eta ordutegi malgua izango dute.

■ Hautagaienezako baldintzak

- Langabezian egotea (langabezi-txartelaren jabe izatea).
- Arrasaten erroldatua egotea, gutxienez 1990eko abenduaren 31tik.

Hautagaien baldintza horiek probak egiterakoan egiaztatu beharko dituzte, INEMeko langabezi-txartela eta Udaletxeko Errolda-Ziurtagiria aurkeztuz. Ez dira onartuko agiri horiek aurkezten ez dituztenak.

■ Hautaketa-prozesua


Bertan, euskara (2.perfila), gramatika eta kalkuluzko oinarrizko probak, eta herriko informazio orokorra eta Hezkuntza Fisikoari buruzko probekin batera, elkarriketa egingo da.

■ Azterketa eguna

Azterketa ekainaren 6an, osteguna, goizeko 10etan egingo da, Monterron Jauregian, eta bertan parte hartzeko Errolda-Ziurtagiria eta langabezi-txartela aurkeztu behar dira.

Arrasate, 1991ko maiatzaren 28an
ALKATEA

Tira, ordu erdiko
atsedenaldia. Gero
segituko dugu.




Lasai, Patxi, antzele guztioi gertatzen zaigu
noizbehinka antzeko zerbait. Egidazu kasu,
lasaitu burua...



Sentitzen dut, ez dakit zer gertatzen zaidan,
baina ezin naiz horretara jarri...



Lehenago edo beranduago, Patxi, hau aterako da.
ONDO ATERAKO DA!




AMAIERA.

**I
R
A
T
I**

✓ Ferrerías kalea
Tfnoa: 79 71 80

**KAJOI
TABERNA**

Erdiko kale 22,
ARRASATE



GARAGARDOTEGIA

Otalora 23, Tfnoa: 77 09 23
ARRASATE

**EDERRA
taberna**

Iturriotz 12, Tfnoa: 79 96 25
ARRASATE

Begoña Garaik 33 urte dauzka. Magisteritza ikasi eta irakasle lanetan ari da lanean. Duela urte t'erdi, Arrasate Telebistan *Berriak* saioa aurkezteko proposamena egin zioten. Konbentzimendu osoz izan ez bazen ere, hiru hilabeterako konpromezua hartu zuen.

— Zer egiten du andereño batek telebista aurkeztzen?

— AEDtik deia jaso nuen arte, inoiz ez zitzaidan burura etorri telebista aurkezte-rik. AEDkoek zerrenda batean sartu ninduten, eta Gabonak aldera frogak egin zizkidaten. Urtarrilean Joxe Aranzabalek deitu zidan, telebista martxan jarri behar zela eta animatzeko. Azkenean hiru hilabetetarako konpromezua hartu nuen. Urte t'erdi igaro da eta oraindik hemen nabil.

— Andereño ala aurkezle?

— Nire lanari normal jarraitzen diot, herri telebista bat aurkeztetik ezin da bizi eta. Gustorago? umeen aurrean noski, lasaiagoa da. Gainera, nik magisteritza ikasi nuen eta horixe da nire lanbidea, hamabi urtetan nabil eskolak ematen.


Telebistakoa esperientzia berri bezala hartzen dut, garbi bait daukat nire etorkizuna ez dagoela telebista munduan, ez behintzat pantaila aurrean. Beharbada pantaila atzean lan egitea onartuko nuke, hainbeste urte irakas-kuntzan egin eta gero aldatzea gustatuko litzaidake-elako, baina une honetan neure burua irakasle ikusten dut.

— Umeen aurrean lasai egoten omen zara, eta telebistan agertu zinen lehen egunean?

— Telebistara daramaten

Begoña Garai

ATBko beste aurpegia



eskailerak igotzen hasi nintzenerako, dardarka nengoen, oso urduri eta tentsio handi baten menpean, mundu berria eta ezezaguna bait zen niretzat. Gaur egun ez dut esango eskolan bezain lasai egoten naizenik, baina hasieran baino askoz ere hobeto, bai.

— Komunikatzeko gaitasuna berezkoa da ala landu beharrekoa?

— Alde batetik berezkoa eduki behar da, esaterako hitz egiteko erraztasuna izatea oso garrantzitsua da telebistan lana egiteko. Bestalde, landu beharra ere badago, nire kasuan adibidez: egun

guztian umeekin lanean iharduten dut, komunikatzen, baina beste era bateko komunikazioan. Telebistara joan eta buruz ikasten ditut eguneko berriak. Egoera artifizial samarra bihurtzen da.

Telebistak, naturaltasunez azaldu beharra eskatzen du. Egun guztian informazioa landu, berriak neuk egin eta gero azaldu beharra izango banu, komunikazioa askoz ere naturalagoa izango litzateke, era horretan berria bizi egiten bait da.

— Herri Telebistan zabil-tzanez, zure ustez zein da ATBk bete behar duen pape-ra?

— Alde batetik, herrian gertatzen denaren berri eman. Bestetik, eta kontuan hartuta ATBren helburu zuzenena euskara dela, programa entretenigarriak egin.

— Eta betetzen ditu helburu horiek?

— Ez dakit zenbateraino. Herrian gertatzen denaren berri emateko helburua betetzen dela uste dut; bestea ez dakit, kalean zurrumuruak entzuten dira, programak ez direla atseginak, ez direla ikusten... ez dakit. Inkestak egin beharko lirateke hori jakiteko.

Bestalde, emisio-orduak ere ez zaizkit egokienak iruditzen, eta hemendik aurrera gutxiago, arratsaldeko 8etan eguraldi onarekin etxean inor ez dagoelako. Errepikapena ematen den orduan ere, etxean bakarrik etxeokandreak izaten dira.

— Baduzu telebistan idolorik?

— Maddalen Iriarte eta Elene Lizarralderen estiloa gustatzen zait. Norbaitek idoloztat naukan? Badago kakaume bat, ez dakit nola daukan izena, baina kalean ikusten nauen bakoitzean, hor hasten da esaten "*ATBkoa, ATBkoa...*". Gero lehengo egunean, beste emakume batek oso alkandora politik ateratzen nituela esan zidan.

— ATBren bertute eta arazorik handienak?

— Bertuterik handiena euskara bultzatzea litzateke; arazorik handienak berriz, kompetentzia, baliabide, eta herriko alderdi batzuk jar-tzen dituzten oztopoak.

— Hiru hilabeterako konpromezua hartu, urte t'erdi lanean, noiz arte?

— Zuzendariarekin hitz egin behar dut, baina dena dela, ekainean uzteko asmoa daukat. Ez nago aspertuta, baina ez daukat denborarik.

— **“** Ez dakit ATBren helburuak zenbateraino betetzen diren **”**

Asteburu antzua emaitzetan

Dorletako Amaren Txirrindulari Eskolak hainbat froga izan ditu asteburuan zehar. Aipatzekoak izan daitezke Iraultza Alberdik haur mailan lortutako seigarren postua, FAGOR-Dorletako lau taldekideek Mundial aurreko lasterketan denak metaratu zirela, kontuan izanik 190 parte hartzailetik 65ek amaitu zutela.

Aipatzerakoan, atal berezi bat merezi dute Hotz-Bero-Chapime taldekoek, Urnietan korritutako lasterketan postu onak lortu ahal izan zituzten eta. Josemi Elizburu laugarrena izan genuen, Zigor Urain zortzigarrena eta Aritz Altube hamabostkarrena.

Ondoko argazkian Josemi Elizburu ikus dezakezue, laugarren postuagatik irabazi zuen garaikurrarekin. Zorionak, Josemi!



Arrasate Kirolak gorenengo mailara

Joan den larunbatean Ordiziako Altamirako pistetan gure atletak mailaz igotzeaz gain, beste rekord bi lortu zituzten. Pisu jaurtiketan Asier Fernandez de Arroiabek 12,41 metrotan utzi zuen aurretik Ignazio Maizbidek 12,22 metrotan ezarria zuena. Bestalde, 4x400 metrotan J.C.Martin, J.A.Gay, R.Canales, G.Saavedra laukoteak 3-27-70 segundutan ezarri zuten beste lau arrasatearrek 89garren urtean 3-28-70 segundutan finkatua zutena. Beraz, garaipen nasaia lortuaz gain, arrasatearrek kirol ikuskizuna dotoretu egin zuten.



Shanti Galanek Dibateza gainditu

Ez zen arerio samurra izan Shantiri parean tokatu zitzaiona larunbat gauean Arrasateko Kiroldegian. Kasu honetan frantsez nazionalitatea duen Dibateza zaireñoiari muturrak apurtu nahi izan zizkion, baina Shanti guztiaren beharrea izan zen, uste baino hobe ba bait zen parekoa. Azkenean, puntuetara izan bazen ere garaipena Arrasaten gelditu zen.

Aipatu bestalde, estatu mailako txapelketa Ordizian jokatuko dela eta ezin izen dela Arrasatera ekarri etxe komertzialen eta ikusle goaren laguntza ezagatik. Lastimia!

ESTETIKA ZENTRUA

lurrundegia, opariak, jostailuak

Z a r r a o a

Kanpantorpea 4, Tfnoa: 79 12 19

 **MIKEL**

Eskaiola, pintura eta kortexozko apainketa

Tfnoak: 77 12 88 eta 77 12 75
ARRASATE

PODIUMA

RAMON
JAUSORO


*Maratoian 2:20tik
jaitsi nahian*

Hamalau urterekin, Almenen zebilela hasi zen takarradan. Harez geroztik kilometro asko zapaldu dituzte Ramon Jausoro korrikalari artxabaletarraren oinek.

Azkarra da gainera mutila. Azken Arrasate-Oñati lasterketan berak irabazi zuen, 34 minutu eta 52 segundurekin. Eta askok ez dakitena, bezperan Ordizian 5.000 m-ko lasterketan parte hartu eta gero.

Asfaltoan hobeto dabil, baina Ramoni belarra gustatzen zaio atxintxiketan egiteko. Era guztietako zoruak zapaltzen ditu, hala ere: asfaltoa, porlana, baldosa, tartana... milioika bider honez gero eta "zorionez, oraindik ez dut lesio handirik izan".

Ez da profesionala Ramon. Artxabaletako Luzio Garai fundizioan egiten du lan, zortzi ordu egunero. Lanetik irten eta Artxabaleta edo Almen inguruan entrenatzen da. Orain 80 km egiten ditu astean, baina maratonia gertatzen dabilenean, 140-150 km. inguru. «Horrenbeste kilometro eginda, urtean 6-7 pare zapatila behar izaten ditut, entrenatzeko, lasterkatzeko edo pista zein belarretan ibiltzeko. Dirulaguntzarik ez izan arren, eskerrak Astorek arropa eta



zapatilak ematen dizkidanari".

Carlos Lopeseekin Elgoibarren korritu zuen, portugaldarra erretiratzear zegoela. Hala ere, Bordin italiar txapeldun olinpikoa da Ramonen idoloa.

Distantzia luzeetan hobeto dabil. Bost milatik behera, ordea, ez da ondo moldatzen. Urtean zehar era guztietako frogak egiten ditu. 5.000tan egin duen denborarik onena 14'44" izan da, Tolosan. 10.000 metroan 29'58", Barakaldon eta maratoian 2 ordu eta 22", Bilbon.

Aurtengo urterako ezarrita zeuzkan helburuak -tar-tean Euskadiko selekzioan sartzea- bete ditu, oraingoz. Maratoiarena falta zaio. «Maratoia sekulako jipioia da, baina bururako bai-pat. Azkenean bete-bete egiten zara». Bi ordu eta hogeitun minutuk jaiste du xede eta Donostian lo-rtu nahi du, urrian. Akaso ikusiko duzue, izerditan blai, tximistak bezala pasatzen. Ramon Jausoro da eta Donostiako maratonia du helburu.

◆ Pilotariak denetarik

Gipuzkoako herrien arteko txapelketan gaizki eta Deba Arroko txapelketan ondo. Aurrekoa litzateke pasa den asteburuan Arrasateko pilotari-ek gindakoaren laburpena.

Gipuzkoako txapelketatik kanpo gelditu da Arrasateko taldea, Seguraren aurka jokaturako hiru partiduak galdu eta gero. Emaitzak, hauexek: haurretan 18-9, gaztetan 22-6 eta nagusi mailan 22-21. Deba Arroko txapelketan ber-ritz, Oñatiren aurkako neurketa ondo joan zen arrasatearrentzat, lau parti-duetatik bat bakarrik galdu zuten eta.

Datorren asteburuan, Gipuzkoako herrien arteko pala eta paleta txapel- ketako partiduak jokatu dira, Mu- sakolan, arratsaldeko 5etan.

◆ Gimnasia erritmikoa kiroldegian

Oraindik urrun samar badago ere, datorren ekainaren 23an Musakolako kiroldegian gimnasia erritmikoko erakustaldia izango dela aurrera daite- ke. Orain arte Arrasaten gimnasia er- ritmikoko erakustaldiak egin direnean, kanpotik etorritako taldeek parte hartu dute, baina 23ko erakustaldian baka- rrik Arrasateko taldeak hartuko du par- te, 30 lagunek osatua berau.

◆ Gaizka Aranegi bikain

Pasa den larunbatean, Mostolesen Espainiako Judo Txapelketak burutu ziren. Gaizka Aranegi arrasatearrak Euskadiko selekzioarekin parte hartu zuen. Aranegik, 78 kilotik beherako kategorian borrokatu zuen, eta azkenik Estatuko boskarrena izatea lortu zuen. Gaizka Aranegik bost borrokaldietan hartu zuen parte, horietatik 3 irabazi eta bi galduz. Azkenean hamalau urteko arrasatearra final laurdenetara iristea- rekin konformatu behar izan zen.

Berango



Sukalde-altzariak, mahaiak eta aulkiak

Erakusketa: Legarre pabiloia z/g, Gipuzkoa etorb. Tfnoa: 79 01 92 ARRASATE

Muskuluen lesioak: etendurak

Giza gorputzak ondo definitutako 300 muskulu baino gehiago ditu, hauek gorputzaren pisu osoaren %40a suposatzen dutelarik.

Muskuluak, guztiz espezializatutako mila zuntz edo fibraz osaturik daude, eta aldaketa ezberdinei ederki eta azkar erantzuten diete; are gehiago lesionatzen direnean, 3 aste barru orbanduta edo zikatritzatuta egotea posible bait da, guztiz lehengoratu.

Dena den, lesioa suertatzen denean, ia beti nolabaiteko odoljariora agertzen da, eta honek orbanketa hori kolokan jarriko du agian, zuntzen muturrak ez bait dira derrigorrezkoa duten kontaktuan

egongo. Odoljariora edo hemorragia hori kontrolatzea posible denean, azkarragoa eta osoa izango da orbanketa.

Etendura muskularrak modu ezberdinetan gerta daitezke, baina batez ere muskuluak esfortzu handiegia egin duelako, konpresioarengatik inpakto zuzena dela medio edo kolpe batengatik.

Etendura hori partziala izan daiteke, zuntz batzuk soilik apurtzen badira; edo osoa, muskuluko zuntz guztiak eteten badira.

Lesio muskularrak errazten dituen zirkunstantziak:

- Ariketa egiteko muskulua gaizki prestaturik egotea, aurretik berotu ez delako.
- Muskulu larzamatatu edo

nekatua errazago lesionatzen da.

- Muskulu tinkoak edo batera lasaitu gabeak, aurrez gertu daude etendurarako.

- Muskuluak, hotza denboraldi luzean jasan ondoren, normalean baino kizkurgaitzagoak izaten dira, hau da, lesionatzeko errazagoak.

Etendura muskularraren sintomak honako hauek dira:

- Min bizia eta zorrotza lesioa gertatzen den momentuan, eta berriro agertzen da muskulua mugitzen den bakoitzean, baina geldirik egonez gero min hori ia-ia desagertu egiten da.

- Muskuluaren deformazioa.

- Mina eta hantura lesio-

aren inguruan.

- 24 ordu barru odolbildua edo hematoma ager daiteke, odoljariora muskularren erakusgarri.

Etendura muskularra gertatzen denean egin beharrekoa:

- Berehala gelditu eta geldi mantendu muskulua.

- Lesioan hotza jarri.

- Lesioaren ingurua lotu.

- Afektaturiko gorputz atala igo erazi, odoljariora gutxitzeko.

- Ez inolako masaiarik eman!

Etendura muskularra dagoela somatzen den guztietan medikuagana jo beharra dago eta ahal den azkarren gainera.

Eukeni & Arantxa

Antzerkia


Xabier Martík eta

Chistian Atanasiuk

BOXTROT

aurkezken dute.

- **Ekainak 8, larunbata**
- **Gaueko 10.30etan**
- **Amaia antzokian**




Batuta

Rafa Agirre

Rafael Agirre, 50 urte, Ferrerías kalean jaiotakoa, Eskola Politeknikoan eskolak 22 urtez eman dituen... arrasatear konpletoa, baina Eskoriatzako Gorosarri abesbatzan kantari eta lehendakari. *"Beno, Gorosarritik deitu zidatenean Arrasaten ez zegoen abesbatzarik eta horregatik joan nintzen egun batzuetarako. Gorosarrin aurkitu nituen giroa, jendea, eta kantatzeko era izugarri gustatu zitzaizkidan, beraz gelditu egin nintzen. Handik hilabete batzuetara Goikobalu osatu zen, baina nengoen tokian gustora egonda, ez neukan zertan aldatu. Han edo hemen kantatzea berdin da, gauza kantatzea da".*

Beste askok bezala, Rafael Agirrek musikarako zaletasuna gazte-gaztetatik izan zuen. Zortzi urte zituela, Dionisio Arizmendirekin, Arrasateko organojolea izandakoarekin, solfeoa kantatzen ikasi zuen. *"Dionisio Arizmendik, kantatzen irakatsi zidan. Haren eraginez parrokiako koruan sartu nintzen, eta han ibili nintzen urte luzeetan. Hasieran*



tiplea nintzen. Ahotsa aldatu zitzaidanean berriz, tenorea".

Dena dela, Dionisio Arizmendik erakusteko meritua izan zuen moduan, Rafael Agirrek ikastera joatekoa izan zuen, bere kabuz ikastera joan bait zen. *"Txiki-txikitatik izan dut musikarako gustoa. Kontzertua edo dantzaldia zegoen bakoitzean, bandaren musika entzuten egoten nintzen. Igande arratsaldeetako dantzaldietan, berdin zitzaidan nork dantzatzen zuen edo nork ez, nik entzun nahi izaten nuen".*

Hasieran esan dugun bezala, Rafael Agirrek kantuan egiteaz gain, eskolak ematen ditu Eskola Politeknikoan. Ez da arraroa bere ikasleen artean hamarren bat kantukide aurkitzea. *"Entxufeaz ez, baina beti harreman estuagoa daukazu, hobea. Gainerako ikasleak harritu egiten dira harreman horietaz".*

Dantzaldietan berdin zitzaidan nork dantzatu, musika entzun nahi nuen

Txio txioak

San Juanetarako musika programa

Inon musikarik gabeko jai onik ospatu ez denez, San Juanetan musikari protagonismo handia eman zaio. Ekainaren 21ean Mikel Laboaren kantaldia Arrasateko Polikiroldegian, behintzat gaisorik jausten ez bada. Ez da ahaztu behar, Mikel Laboak azkenengo urteotan Arrasatera etotzeko hitza bitan eman duela eta beste hainbestetan azkenengo egunean atzera egin behar izan duela, osasun arazoak medio. Aurten goan behintzat ez dakigula horrelakorik gerta!

Goian aipatutako kantaldi horretaz aparte, festak iraun artean egunero egunero musika bandak egongo dira. Hilaren 23an Elgoibarko banda eta Iruñeko gaiteroak izango ditugu ikusgai. Hurrengo egunean Bilboko bandak eskainiko du kontzertua. Hilaren 25ean Eskoriatzako bandakoak izango dira eta biharamonean ostera, Bergatarren musika banda.

Gauean berriz, musika entzuteaz gain gorputzari ikara eragin nahi diotenentzat, gauero izango da lan horretarako aroa. Etorri behar duten taldeak honako hauek: **Gaurko Berri, Inguema, Eguzki, Tarantela, Egan eta Berakatz Band.** Ez da egitarau makala, ez Kaleko giroa berotu nahian Arrasateko Trikitilari Eskolakoak ere hor ibiliko dira jo eta sue soinuaren hauspoa bete eta husten. Horrez gain, egun-sentiko gaiteroen doinua eta txalapartarien ohol hotsa ere gure tartean izango dira. Tira bada, hasi prestatzen, dantzan egiteko aukerak paregabeak dira eta.

BAKAILO ETXEA

Makailoa eta beroni buruzko produktuak
Makailoa, kroketa eta piper kazolak prestatzen ditugu
Mondragones 7, (Azoka ondoan) Tfnoa: 79 93 07 ARRASATE

Eslu ileapaindegia

Tfnoa: 79 37 88
Arrasate

Euskararen lurralde mailako normalizazioa

Onartzen baldin bada euskarak beste edozein hizkuntzak adinako balioa daukala berez; premisa hori onartuta perspektiba berriak zabaltzen zaizkio euskarari. Normalena, izan ere, horixe baita: euskara, une historiko honetan eta Euskal Herrian, hizkuntz komunitate baten hizkuntza izanik, hizkuntza oso modura osatzea. Eta normalizazioaren helburua hori besterik ezin daiteke izan; gainerako guztiak helburu horrekiko hurbilpenak edo urruntzeak baino ez dira izango.

Hizkuntza oso modura euskarak osatzeko duen lurralde bakarra Euskal Herria

da. Hau kontuan izanik, euskara desagertzea edo euskara normalduta ez egotea ez da bakarrik euskaldunon arazoa, euskara galduz gero humanitate osoak galduko luke zertxobait. Ikusi nola esaten duen Joxemiel Barandiaranek: *"Guk ez dugu eskatzen baztertzeko, eta are gutxiago mozteko, beste lorerik, geurea bizirik uzteko baizik. Ondasun kolektibo direla eta, animalia eta landare espeziek ere, beren balioa babestua eta bultzatua duten zibilizazio honetan, gehiegi eskatzea ote da hori? Ba horixe da eskatzen duguna"*.


Beste lurralde batzuetan gertatutakoak aztertu ondoren, ez bairik gabe baieztatu

daiteke hizkuntz minorizatu batek aurrera egingo badu, bere lurralde osoan berak bakarrik izan behar duela hizkuntza ofiziala. Eta euskarari gaur egungo legedian ez zaio halakorik aitortzen. Bertako botere politikotik abiatuta hasi behar du normalizazioak. Gizartearen "agintzen" duten euskaraz bizitzeko gaitasunik ez badute, lortu egin behar da postu horietara iritsi ahal izateko euskara behintzat behar den moduan menderatzea. Beste modu batean esanda: normalizatu beharreko entitateen erdigunean (agintean) hori egiteko gai izango diren euskaldun osoak ez baldin badaude, nekez normalizatu du inork kanpotik hor-

ko egoera.

Norbaitek uste badu erderaz pentsatzen den tokitik euskararen aldeko normalizaziorik etor daitekeenik, oker dabil. Euskarak botere politikoa izan behar du, bestela beti izango da "una lengua de segunda". Botere politikoa eta botere politiko euskalduna gainera, baina hori ez da gauetik goizera egiten, eta horretarako lehendabizi pertsona konbentzituak eta konprometituak behar ditu euskarak, behar pertsonal sakon batean oinarriturik normalizazioaren azken helbururaino joateko gertu daudenak. Era horretako pertsonak dira euskarak exijitzen duen aintzindarien belaunaldiaren partaide.

Atalataikoan



Patterncam

**EREDUAK,
MAKETAK ETA
KONTROL-TRESNERIA
CAD-CAM
BIDEZ**

Musakola auzoa 26,
Kataide Industrialdea. 15. pabilioia. Tfnoa: 77 08 30. Faxa: 77 06 06
ARRASATE



Argazkia: Joseba

Largiak eguzkiari txanda hartzen dion era berean, egun argiko umeen oihu eta txakurren zaukak gaueko ixiltasunagatik txandakatzen

dira. Une horietan, erdoilaren aurka burukatzen duten ziburuetan ere aldaketak ematen dira. Eguzkipean ume bihurriak ziburutako errege bihurtzen diren bezala, gauean iratxoz betetzen dira: iratxo loditxoa irristokitik

jaitsi ezinik gelditu da, zabalegia halako estugunerako; bitartean, beste bi iratxo ziburuan ari dira, neskatila eserita eta mutikotxoa bultzaka. Iratxoen aitona zaharra bere eskumakila eskuetan duela jarlekuan eserita dago,

kontu handiz umeei begira... orduak joango dira eta eguzkia azaltzen denerako iratxoen munduak haurtxoei utziko die tokia, gauerdiko sagu zaharrak harrapatu eta betirako eraman ez baditu behintzat.

100 SERIEKO ROVER BERRIA

ROVER HANDIEN INDAR GUZTIA.


Miresgarria, 100 serieko Rover berria. Txikia, baina Rover handien indar guztiarekin. Teknologiarik aurreratuena du bere K serieko motore berrian -16V GTi-an- aleazio arinaz egina 95CVko indarra eman liezaiokeena.

Eta zuri, eskatu nahi diozun guztia. Zeu bezain aparta du bere ekipamendua.

Ausartu eta helduiozu. Rover berria da 100 x100. *



100 SERIEKO ROVER BERRIA
ROVER 100 x 100




* Azken salneurri gomendatua. BEZ eta garrasio-gastuak barne. Ekipamendua: Erloju digitala. Atzeranzko ispiua eskutinean ere. Bira-kontadorea. Ixte zentralizatua. Aleaziozko llantak. Aurreko lehoen jasogailu elektrikoak. Atzean spoiler-a. Atzean ere segurtasun-uhalak. Esarleku deportiboak. Dolkuntza lunbarra. Atzeko eserleku tolesgarria 60/40.



Bizikletaren arriskua?

Udaberria iritsi zen eta atarian dugu ate joka udaren lilura. Asko eta asko bizikleta hartu eta bideetan edo mendietan ibiltzeko irrika bizian daude. Badakigu jakin, bizikletak batez ere, errepideetan arrisku-faktore handia duela trafikoa ikaragarria bait da udako asteburuetan. Mendian ostera, arrisku horrek behera egiten badu ere, aholku txiki batzuk gogoan izatea komeni zaigulakoan edo, istripu txikiren bat gertatuz gero, botikin txikia izatea komeni da.

Badago bat "bandolera" izeneko, baina onena, zantalzarik gabe, norberak



etxean prestatzen duena da: eroatekotan, behar-beharrezkoa dena eroan. Kontuan hartu bidaia luzean joanez gero, botikin horrek osotua go izan behar duela.

Oinarrizko Botikina

Saboi neutroa: zauri garbiketarako erabiliko dugu. Uraz beratu eta plastikozko botilatxo batean eroan daite-

ke. Badaude marka batzuk: Armil, Mercryl.

Antiseptikoak: desinfektatzeko balio dute...

Gasak: zauriak garbitzeko eta babesteko.

Bendak: edozein erabil dezakezu; badaude elastikoak, itsatsi egiten direnak.

Esparadrapoa: estutu, eutsi eta gogortzeko balio du.

Artazi edo guraize batzuk, baina txikiak.

Zinta zatitxo bat ere eroan daiteke, torniketak eta, egiteko: zabalera 2zm, luzera: 40zm.


Ikusten duzuenek, guzti hau oinarrizkoa da eta eguneko ibilaldiak egiteko botikin haundiagoa eroan behar da: garrantzitsuena guzti honetaz jabetzea da, arriskuaren arabera mentalizazioa izan behar da.

Horregatik, urten behar baduzu, har itzazu kontuan egunetarako zoazen edo bestelako txango txiki bat egingo duzun. Badakizu esatera zaharrak zer dioen: "alperri da presa egitea, ura pasau eta gero".

K. U.

EUSKAL FAMILIATAN

IKASI!!!



Euskara ikasten ari zaretenontzako egonaldiak euskal familiatan.

Informazioa eskuratu nahi baduzu, jo Udaletxeko Euskara Zerbitzura. Tfnoa: 79 09 00



Argazkia: Joseba

Largiak eguzkiari txanda hartzen dion era berean, egun argiko umeen oihu eta txakurren zaunkak gaueko ixiltasunagatik txandakatzen

dira. Une horietan, erdoilaren aurka burukatzen duten ziburuetan ere aldaketak ematen dira. Eguzkipean ume bihurriak ziburuetako errege bihurtzen diren bezala, gauean iratxo betetzen dira: iratxo loditxo irristokitik

jaitsi ezinik gelditu da, zabalagia halako estugunerako; bitartean, beste bi iratxo ziburuan ari dira, neskatila eserita eta mutikotxo bultzaka. Iratxo aitona zaharra bere eskumakila eskuetan duela jarlekuan eserita dago,

kontu handiz umei begira... orduak joango dira eta eguzkia azaltzen denerako iratxo munduak haurtxoei utziko die tokia, gauerdiko sagu zaharrak harrapatu eta betirako eraman ez baditu behintzat.

100 SERIEKO ROVER BERRIA

ROVER HANDIEN INDAR GUZTIA.

Miresgarria, 100 serieko Rover berria. Txikia, baina Rover handien indar guztiarekin. Teknologiarik aurreratuena du bere K serieko motore berrian -16V GTi-anez aleazio arinaz eginako indarra eman diezaiokena.

Eta zuri, eskatu nahi diozun guztia. Zeu bezain aparta du bere ekipamendua.

Ausartu eta helduiozu. Rover berria da 100 x100. *



100 SERIEKO ROVER BERRIA
ROVER 100 x 100



ROVER
CREDIT


ROVER

* Azken salneurri gomendatua. BEZ eta garraso-gastuak barne. Ekipamendua: Erloju digitala. Atzeranzko ispihutsu eskutxan ere. Bira-kontadorea. Lxte zentralizatua. Aleaziozko llantak. Aurreko lehiotzen jasogailu elektrikoak. Atzean spoiler-a. Atzean ere segurtasun-uhalak. Esarleku deportiboak. Dotzuntza lunbarra. Atzeko eserleku tolesgarria 60/40.

Bizikletaren arriskua?

Udaberria iritsi zen eta atarian dugu ate joka udaren lilura. Asko eta asko bizikleta hartu eta bideetan edo mendietan ibiltzeko irrika bizian daude. Badakigu jakin, bizikletak batez ere, errepedeetan arrisku-faktore handia duela trafikoa ikaragarria bait da udako asteburuetan. Mendian oster, arrisku horrek behera egiten badu ere, aholku txiki batzuk gogoan izatea komeni zaigulakoan edo, istripu txikiren bat gertatuz gero, botikin txikia izatea komeni da.

Badago bat "bandolera" izeneko, baina onena, zantalzarik gabe, norberak



etxean prestatzen duena da: eroatekotan, behar-beharrezkoa dena eroan. Kontuan hartu bidaia luzean joanez gero, botikin horrek osotua izan behar duela.

Oinarrizko Botikina

Saboi neutroa: zauri garbiketarako erabiliko dugu. Uraz beratu eta plastikozko botilatxo batean eroan daite-

ke. Badaude marka batzuk: Armil, Mercryl.

Antiseptikoak: desinfektatzeko balio dute...

Gasak: zauriak garbitzeko eta babesteko.

Bendak: edozeinerabil dezakezu; badaude elastikoak, itsatsi egiten direnak.

Esparadrapoa: estutu, eutsi eta gogortzeko balio du.

Artazi edo guraize batzuk, baina txikiak.

Zinta zatitxo bat ere eroan daiteke, torniketak eta, egiteko: zabalera 2zm, luzera: 40zm.


Ikusten duzuenek, guzti hau oinarritzkoa da eta eguneko ibilaldiak egiteko botikin haundiagoa eroan behar da: garrantzitsuena guzti honetaz jabetzea da, arriskuaren arabera mentalizazioa izan behar da.

Horregatik, urten behar baduzu, har itzazu kontuan egunetarako zoazen edo bestelako txango txiki bat egingo duzun. Badakizu esatera zaharrak zer dioen: "alperri da presa egitea, ura pasau eta gero".

K. U.

EUSKAL FAMILIATAN

IKAS I !!



Euskara ikasten ari zaretenontzako egonaldiak euskal familiatan.

Informazioa eskuratu nahi baduzu, jo Udaletxeko Euskara Zerbitzura. Tfnoa: 79 09 00



UDAL EUSKALTEGIAK

Udako ikastaro trinkoa

aurkezten du.

- Egunean 5 eskola ordu
- 5.000 PTA matrikula
- Bekak
- Uztailaren 1ean hasteko

Informazio gehiago:

- 77 70 77 tfnoan.
Goizez (9-12)
Arratsaldez (14.00-19.00)

Matrikula
epea
zabalik

**Arimazuri 2,
(Eskola Politeknikoaren ondoan)**

Aste gazte

"Gazteak auzo, ikasle, sindikatu, erlijio edo beste motatako elkarteetara hurbiltzea garrantzitsua da, haien eritziak bideratu ahal izteko. Elkartuta, bakarrik baino askoz ere gauza gehiago lor daitezke eta."

Bidaia

26 urtetik beherako gazteei edota 30etik beherako ikasleei TIVEk (Turismo-Bulego Nazionala) prezio bereziak eskaintzen dizkie. Adibideak: Europa osotik zehar tenez bidaiatzeko interrail txartela 27.000 pta., Bilbo-Londres hegazkinez 15.000 pta., Donostia-Londres autobusez 9.760 pta., eta abar.

Bekak

1991-92 ikasturtean Ikertzaileak Prestatzeko Bekak. Eka-programak: a) Doktoradutza-aurreko bekak (alor orokorra), Estatu espai-

nolean nahiz atzerrian. b) Doktoradutza-aurreko bekak (alor zehatzak, Estatu espainolean nahiz atzerrian. c) EAera itzultzeko doktoradutza-ondorengo bekak. d) Ikertzaileen hobekuntzarako doktoradutza-ondorengo bekak. Beken iraupena: 12 hilabete. Dirulaguntzak: Estatu espainoleko zentruetarako bekak: hileko 95.000 pta. eta matrikula. Atzerrikoetarako: 140.000-168.000 pta., joan-etorriko bidaia eta matrikula. Epea: ekainak 7.

1992-93 ikasturtean Estatu Batuetan ikasketak sakontzeko bekak. Eskatzaileak: ingelesa menperatzen duten goi mailako lizentziatuak edo karrerako azkenengo ikasturteko ikasleak. Dirulaguntza: gehienez, 14.500 dolar, joan-etorriko bidaia, matrikula, orientazio-ikastaroa eta aseguruua. Epea: ekainak 28.

Intercultura

"Langile gazteen programak-91": 3 asteko heziketa-

ta-ikastaroak eta lan-esperientzia atzerriko enpresetan. Non: Portugal (irailak 7-28) eta Irlandan (urriak 5-26). Nori zuzenduak: a) adina: 18-28 urte. b) ikasketak: lanbide heziketa edo lan-esperientzia (unibertsitate-ikasketarik ez dutenei zuzendua). c) Ingeles hizkuntzaren ezaguera. Prezioa: 30.000 pta. (bidaia, alojamentua, mantenua, aseguruua, eta programaren gastuak barne). Izena emateko epea: programa hasi baino bi hilabete lehenago.

Mintegiak

Integrazioa Denbora Libreko Ekintzetan haur eta gazte urrituentzako. Eguna: Ekainak 15. Donostian. Gipuzkoako Atzeratuen Elkarteak antolaturik. Inskripzioa: 1.000 pta.

"Komunikazioa eta Sormena" Musikoterapiarako 3. Mintegi Europarra. Gasteizen, uztailak 1-5. Mintegiarren barruan hainbat ikastaro antolatu dira. Ordutegia: goizeko 9.30etatik 13.30etara.

Prezioa: 18.000 pta. eta 11.000 ikasle edo langabetuentzat. Izena emateko epea: ekainaren 28ra arte.

Lehiaketak

Euskal Herriko Dantzei buruzko I. Argazki lehiaketa. Zuribeltzean edo koloretan. Sariak: 1. bilduma onenari 75.000 pta., 2. 50.000 pta eta garaikurrak. Epea: ekainak 25.

"Gernikako Jaiak'91" Kartel-lehiaketa. Neurriak: 45x65 zm. Teknika librea. Sari bakarra: 75.000 pta. Epea: ekainak 29.

"Nafarroako Jaialdiak" Nazioarteko IX. Pintura-lehiaketa. Gaia, teknika eta neurri libreak. Sari bakarra: 2.000.000 pta. Epea: ekainak 15-30.

Informazio gehiago:

Gazte Zerbitzua,
77 00 65

BERRIRO ERE...

Kanping, hondartza, terraza eta kirol gaien aukera handiena aurkituko duzue salmenta onean



Cercas bajas 34, GASTEIZ

Eslu

ileapaindegia

Tfnoa: 79 37 88

Arrasate

FELIPE
MADINA
ZURAK

Zarugalde 40, Arrasate 79 13 78

ETXEBIZITZAK

- **Etxebizitza salgai Obenerrekan.** Guztiz berriztua. Egongela, bainugela, sukaldea eta logela bat jantziak. Beste bi logela. Trastelekua. 78m². Bakarkako berogailua. Ganbara. Deitu inongorik gabe 79 98 83 tfnora. Gaueko 8etatik 10k bitartean.
- **Uribe auzoan etxebizitza salgai.** 107 m², garajea, trastero eta ganbara. Dei egin gauean 79 34 23 tfnora. edo denda orduetan 79 98 94 tfnora.
- **Erguinen etxebizitza salgai.** (Garajea aukeran). 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela, 2 terraza. Eguzkitsua. Bista ederrak. Gas naturala. Tfnoa: 79 93 42.
- **Naturazaleok: hondartza ondoan dagoen apartamendu-estudioa alokatzen dut.** Paraje naturala. Guztiz ekipatua. Vera-n (Almeria) Harremanetarako jo 94- 467 47 07 tfnora.
- **Baserrira alokatu edo erosiko genuke Deba Garalan.** Deitu 79 75 96 tfnora. Jon.
- **Peñiscolan sei pertsonarentzako bungalowa alokatzen da uda osoan.** Dei egin 27 01 37 tfnora. Itziar.
- **Lokala alokatzen da Uribe auzoan, 35m² eta erabiltzeko prest.** Informazioa: 79 84 37 tfnoan. Dei egin astegunetan goizez, 9etatik 12ak arte.
- **Aretxabaleta edo Arrasaten etxebizitza alokatuko nuke.** Dei egin 79 10 60 tfnora.

LANA

- **Gizon gaztea lan egiteko prest.** Egun erdi, goizez. Dei egin 79 75 43 tfnora. Jesus.
- **Cobol-eko klase partikularrik hartuko nituzke.** Dei egin 15.30etatik 17.30etara. Tfnoa: 77 08 15. Mikel.

- **Tailer batean lan egingo nuke mekanika aprendiz bezala.** Tfnoa: 79 96 10.
- **Ileapaindegi batean egingo nuke lan.** Ikasketak bukatu ditut. Tfnoa: 79 56 36.
- **Lanak ordenadorez Inprimatuko nituzke.** Dei egin 79 13 26 tfnora. Maite.
- **Neska euskalduna behar da Gasteizen.** Tfnoa: 79 25 98.
- **Euskara eta Ingeleseko klase partikularrik ematen ditut.** Tfnoa: 79 21 56.
- **Edozein lan egiteko prest nago, nahiz eta hispaniar filologian lizentziaturazian.** Yolanda. Tfnoa: 79 76 90.
- **Fisikarako eta kimikarako mailua behar da.** (Injinerutza 1. mailarako). Dei egin 79 42 70 tfnora. Esteban.

SALEROSKETAK

- **Karrerako bizikleta salgai.** Arina, polita, gutxi erabilia. Prezio interesgarria. Tfnoa: 76 32 69
- **Algebra liburuak salgai.** (UNEDen Zientzia zehatzak karrerako egokitze mailan erabiltzen direnak). Estrenatu barik eta prezio onean. Dei egin iluntzeko 8.30etatik aurrera 79 92 29 tfnora.
- **Bederatzi hilabeteko txakurra salgai.** Informazio gehiagorako dei egin 79 82 91 (Tomas) edo 79 49 49 (Iban) telefonoetara.
- **Egoera onean dagoen bateria mterkea erosiko nuke.** Dei egin 8etatik aurrera 79 52 31 tfnora Iban.
- **Aulki anatomikoak saltzen dira prezio onean.** Informazio gehiago 79 06 66 tfnoan. Goizeko 10etatik 13.30rak arte.
- **Kirola egin nahi dut, baina etxeko bizikletarik ez, akaso zeuk izango duzu saltzeko.** Neuk erosiko dizut. Tfnoa: 79 50 53. Josepa.
- **Egoera onean dagoen Renault 6 GTL bat**

erosiko nuke. Lanorduetan 77 09 40.

- **Vespa 200 motorra salgai.** Intermitenteduna, gutxi erabilia eta egoera onean. SS-U matrikulaz. Informazioa: 79 28 12 tfnoan. Javier.
- **Egoera onean dagoen Visa autoa salgai.** Aparteko gauza asko jarrita: lainoaren kontrako argiak, sabaian leihoa, etab. Tfnoa: 79 28 12.
- **R-14 GTL berebila salgai, ITVA pasatua.** Prezioa 125.000 PTA transferentzia barne. Dei egin 8etatik aurrera 79 58 98 tfnoa.
- **Fotokoplagailu bi la berriak salgai.** Informazioa: 79 17 82 tfnoan. (denda-orduetan).
- **Citroen C-15 furgoneta salgai.** Aukera ezin hobea, hiru urterekin (SS-AB). Interesatuak dei egin lehenbailehen 94- 682 04 83 tfnora. astearte eta ostiral bitartean eta goizez bakarrik.
- **Seat Ritmo salgai.** Dei egin 79 73 02.

DENETARIK

- **Kalealdetik Ferixalekurako bidean estutxe larrosa bat galdu nuen, barruan ajenda eta josteko gauzak nituelarik.** Norbaitek aurkitu badu, dei egin dezala 77 06 51 tfnora.
- **Hitzetik hortzera ikusteko merke edo emateko daukazun telebista hori behar dugu.** X. Letona, A. Errasti, D. Goikolea eta J. Sarasua. Tfnoa: 79 10 93
- **Urrezko eskuturrekoa galdu nuen, harri urdin eta guzti, maiatzaren 3a eta 4a bitartean.** Mesedez, aurkitu baduzu dei egin 79 28 80 tfnora. Eskertu egingo da.
- **Txakurkume politak oparituko dizkilogu ondo zainduko dituenari.** Arraza txikiak dira. Tfnoak: 79 66 45 edo 77 09 40.



ARRASATEN HILDAKOAK



- M^{re} Rosa Juldain Saiz, maiatzaren 22an. 83 urte
- Lorenzo Ugalde Olañeta, maiatzaren 23an. 71 urte
- Gerardo Lopez Puertas, maiatzaren 26an. 83 urte
- Francisco Udabe Egaña, maiatzaren 26an. 63 urte
- Francisco Sarabia Zalama, maiatzaren 26an. 73 urte
- Benito Galdos Durana, maiatzaren 27an. 55 urte

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA BIDALI GURE BULEGOETARA

TESTUA:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....


Azoka kalea 1, 20.500 ARRASATE

Tfnoa: 77 08 15

Zer nahiago?

Fermin Lasagabaster.

Joztuna.



- Christian Dior ala Benetton? Diseinatzailea Christian Dior. Bestea marka hutsa da.
- Gerrikoa ala tiranteak? Gerrikoa. Gehiago jutzen du.
- Egunkaria ala telebista? Egunkaria.
- Van Gogh ala Picasso? Van Gogh.
- Zartzuela ala opera? Opera.
- Kafea ala tea? Ez bata eta ez bestea. Ez zaizkit komeni.
- Mikel Laboa ala Urko? Mikel Laboa.
- Uda ala negua? Uda.
- Bergararrak ala mondragoetarrak, zeintzuk dotoreagoak? Andrak, bergararrak; gizonak, antzera.
- Udalaizta ala Kurtzebarri? Kurtzebarri.
- Lopategi ala Lizaso? Lizaso.
- Lo egiteko, pijamarekin ala gabe? Udan, barik eta neguan pijamarekin.
- Opila ala taloa? Opila.
- Gorbata ala pajarita? Gorbata.
- Danborrada ala ttuntturroak? Ttuntturroak.
- Edredoia ala manta? Edredoia. Gehiago jutzen du, ondo berotu eta ohea egiteko ere, errazagoa.
- Donostia ala Gasteiz? Donostia. Duda barik.
- Athletic ala Real? Real.
- Katua ala txakurra? Txakurra. Duda barik.
- Hildakoan, erre ala lurperatu? Nik neuretzat, erre.
- Larrosa ala krabelina? Biak.
- Filmeak, koloretan ala zuribeltzean? Koloretan.

Artxibotik

Gizakiak

1 Bi hesi zurien artean dago lore gorri-gorria, eguraldi ona edo euria beti dago bustian.

2 Balio dute jateko eta orri hau pasatzeko, asmatzen baduzu baita txalo jotzeko.

3 Erdian luzeena bi motzagoen artean, bazter batean txikiena eta potoloena bestean.

4 Leihoak bezala gara biritxiak, gauean gaude beti itxiak.

5 Denok dugu bat eta bi hotza da eta bero dago beti.

6 Kobazulo hori beti dago hezea, hesi zuriz inguratua han bizi da herensugea.

7 Nire bi ahizpak biak dira langileak, baina egiteko lanak bata dut nahiago bestea da traketsago.

Soluzioak:
Mihia, Eskuak, Eskuo behatzak, betazalak, biotza, Ahoa eta mihia, Eskuak.

comercial
san juan

Garibal 12,
Tfnoa: 79 13 05

hikein
ENMARKETAZIOA

Zerkaosteta 4,
Tfnoa: 79 13 84

KEINU
MASAIA

Zarugalde 26, 1. ezk. Tfnoa: 77 14 88
ARRASATE



"Maria Estuardo" obra antzeztu eta gero.

Gerraostean etorri zen On Jose Maria Arizmendiarrrieta Mondragoera. Lan asko egin zuen eta lan

asko eragin. *Acción Católica*ko neskak hark eraman-zituen antzerki mundura. Denetara bi obra antzeztu

zituzten. Kostata, baina Josefina Fernandezek zuzendaritzapean, argazkiko neskak "Maria Estuardo" obraren libretoa hartu, ikasi eta entseiatzen hasi ziren. Entseiuak azoka plazan egiten ziren, *Verdurin*. Astean bi edo hiru bider elkartzen ziren azokako lehen solairuan. Jantziak handik eta hemendik jiratu zituzten eta batzuk propio egin, egun horretarako.

Domeka zen. Sarrera doan. Verduri lepo. Arrakasta itzela. Argazkia Txanbonenean atera zen, gaurko batzokiko lorategian. Zutik ezkerretik hasita **Jesusa Ateka, Gumer Uriarte, Mertxe Etxebarria, Espe Garai, Karmen Balerdi eta Dolores Villar.** Jarrita, ezkerretik, **Albina Ugarte, Maria Luisa Madariaga, Mertxe Etxarri eta Felisa Aranburu**

**PUB
HAIZEA**









ENARA
OSAGARRIAK

Maalako Errabala 21
20500 Arrasate
Tfnoa: 79 62 32



Erguin eskola publikoa



ARRASATE PRESS ZEURE ETXEAN DOHAIN JASO NAHI BADUZU


EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN

IZEN-DEITURAK.....

HELBIDEA.....

HERRIA.....

Azoka kalea 1, -ARRASATE- Tfnoa: 77 08 15



77 08 15

ARGAZKIA

Kale bat. Hezetasun kutsuak. Zarama.

Makurtu... beherago... makurtu, makurtu... zein argazki hunkigarria...!

Argazkia. Zarama, asfalto bustia. Kalearen unibertsoa...

Jar dezakezu gelako paretan...zein argazki lirikoa...!

Begiratzera koan, tximeletazko betikara, mirari-ikuskerazko ezpain

dardararen sentipena...

eguberriak datozela sentitzea bezala...

dena begien aurrean duenaren

loguraren sentipena,

loaren somaketa,

lo hutsa,

loa.

J. L. Zabala

ITURRIOTZ taberna

GIRORIK

JATORRENA !!

Tfnoa:79 16 04



J. M. Heriz

**Konpromezurik gabeko
aurrekontuak**

Otalora Lizentziatua. Arrasate

3 ASTELEHENA

18.30 Teletestua. Era guztietako iragarki eta abisuak.
19.30 **Bapirulauke**, umeen saioa, aste honetan Ferixalekuko herri eskolan grabatua.




20.00 **Berriak**, Koldo Rodriguezek aurkeztutako albistegia.
20.20 **Mondrasport**, Beñardo Kortabarriak zuzendutako kirol saioa.
20.30 **Saltsa-maltsan**. Jaione Olabek piña-pastela prestatuko du.
20.40 **Berriak**. (errepikaldia)

4 ASTEARTEA

11.00 Teletestua.
12.00 **Bapirulauke** (bezperakoa)
12.30 **Berriak** (bezperakoa)
12.50 **Mondrasport** (bezperakoa)
13.05 **Saltsa-Maltsan** (bezperakoa)
13.15 **Bapirulauke** (errepikaldia)
14.00 **Berriak**

5 ASTEAZKENA

19.00 Teletestua, era guztietako iragarki eta abisuak
20.00 **Berriak**, Koldo Rodriguezek aurkeztutako albistek.



20.20 **Zenbat buru, hainbat aburu**, Jose Mari Velez de Mendizabalek zuzentzen duen mahaingurua.
21.10 **Berriak** (errepikaldia)

6 OSTEGUNA

11.00 Teletestua
12.00 **Berriak** (bezperakoa)
12.20 **Zenbat buru, hainbat aburu** (bezperakoa)
13.10 **Berriak** (errepikaldia)

7 OSTIRALA

19.00 Teletestua
20.00 **Berriak**, ATBren informatiboa, Begoña Garaik aurkeztua.
20.20 **Erretratoa**, J. R. Elortzak zuzentzen duen elkarrizketa. Gonbidatua: Pilar Bastida, Bastida akademiako sortzaile



20.50 **Musikantoi**, Patxi, Pepe, Asier eta Mikelek egiten duten saioa.
Berriak (errepikaldia)

8 LARUNBATA

11.00 Teletestua
12.00 **Berriak** (bezperakoa)
12.20 **Erretratoa** (bezperakoa)
12.50 **Musikantoi** (bezperakoa)
13.30 **Berriak** (errepikaldia)



ETXEPARE - BILINTX LIBURUBENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai 12, Tfnoa: 76 40 50 BERGARA

SUKALDIAK

Zure etxebizitzarako apainketa-proiektuak egiten ditugu

eya

Sukalde eta bainugelako altzaritan espezializatutako denda

Ignazio Zuloaga 4, Tfnoa: 79 05 07



Telebegi

Joan den Igande hone-tan hauteskundeak zirela eta, Arrasateko berri zehatza ematen saiatu ginen programa berezi baten bidez. Ez dakit asmatu genuen ala ez. Baina jende askoren oneritzia jaso omen zuen saio horrek. Eta arrazoia, nire ustez, **hurbiltasuna** da (Herriko botuen berri zehatza eta bertako politikari batzuen kopetiluna edo kope-targia).

Gezurra badirudi ere, ordubete iraun zuen horrek, 10-15 pertsonaren lana behar izan zuen, egun oso hartan, bai eta aurrekoetan ere. Eta behin baino gehiagotan uste izan genuen porrot egingo zuela (elkarrizketatua edo fotokopiak ez ziren agertzen...).

Hori, hala ere, neguko lorea da ATBrentzat. Izan ere, ez dago egunero hainbesteko interesa sor dezakeen herriko eta herrikoentzako konturik. Horregatik, bat nator orain bi aste Andoni Urzelai kideak esandakoarekin: ATBren proiektua benetan sendotuko bada, bestelako filme, marrazki bizidun eta dokumentalak emititzeari ekin behar-ko lioke. Ia bada!

KOLDO RODRIGUEZ

Bizia eta interesgarria izan zen maiatzaren 22an egin zen mahaingurua. PP eta PSOEko ordezkarien ausentzia bezain aipagarria **Jose Mari Loitirena** izan zen, EAJko zerrendaburuarena. ATBn jaso zen esplikazio ofizialak zioen ez zela joango mahaian HBko ordezkari bat zegoelako. **Xabier Zubizarretak** eta **Aitor Orobengoak** -biak argazkian- behin baino gehiagotan azaldu zituzten ikuspegi desberdinak. Eurekin batera, **Pedro Mari Ruiz de Azua**, **Arrate Landa** eta **Joseba Ugalde** zerrendaburuak izan ziren.



Handik eta hemendik jaso ahal izan denez, arrakasta handia izan zuen ATBk igande gauean egin zuen **Hauteskundeak 91** emanaldiak. Gaueko 11.00etan, egunak eman zituen hainbat informazio eta elkarrizketekin batera, Mondragoeko emaitzak ikusi ahal izan ziren. Baita aukeratutako 21 zinegotzien aurpegiak ere. Aurkezleek, teknikariek, grafistak eta dekoratzaileak lan bikaina egin zuten. Chapeau!

Telebelarri

◆ Nik ahalegin berezia egingo nuke partidu abertzaleen artean Alderdi Jeltzalearena izan dadin Mondragoeko Alkatete".

Aitor Orobengoak *Hauteskundeak 91* emanaldian.

◆ Paktoak egiteak jendearen partehartzea oztopatzen du, joerak polarizatu eta besteei ez entzuteko arriskua sortu".

Xabier Zubizarretak *Hauteskundeak 91* emanaldian.

◆ Hemen egin daitekeen paktua "a la orden" egingo da, Diputazioan eta, gauzak nola dauden ikusita. Ez da hemen erabakiko».


Pedro M. Ruiz de Azuak *Hauteskundeak 91* emanaldian.



ARIES

Martxoaren 21etik
Apirilaren 20ra

Haserreak bereganatu egingo zaitu datozen egunetan, Aries, eta ez da erraza izango ez, zurekin solasaldi formalik edukitzea, sutan egongo bait zara eta ez duzu inor abantatzeko egonarririk izango. Baliteke bakarti sentitzea ondorioz.



LEO

Uztailaren 23tik
Abuztuaren 23ra

Baliteke norbaitek zorotzat hartzea. Bestalde, zure eguneroko bizimodurako primeran etorriko da, laguna eta bion arteko harremana zertxobait itzalia bait dago eta aurrera egitekotan, piper pixka bat behar beharrezkoa izango bait du. Hankak zaindu.



SAGITARIUS

Azaroaren 23tik
Abenduaren 21era

Makaldadea eta moteltasuna nagusituko dira zuregan Sagitarious. Zugandiek zeozer espero duenak aurrean erabili beharko zaitu zeozertan jarri nahi bazaitu.



TAURUS

Apirilaren 21etik
Maiatzaren 20ra

Trebe egongo zara komunikaziorako, bai ahoz eta bai idatziz. Aholkulari ontzat edukiko zaituzte ingurukook eta zure eritziak ohi baino eragin handiagoa izango du erabakietan.



VIRGO

Abuztuaren 24etik
Irailaren 23ra


Sentibera egongo zara datozen egunetan eta besteek antzemango ez duten arazorik txikiak ere arduratuta edukiko zaitu. Temati egongo zara mundu guztia zure gainean egotea nahi izango duzulako.



CAPRICORN

Abenduaren 22tik
Urtarrilaren 20ra

Parranda egiteko amorratzen zaude, Capricorn, eta parrandatik parrandara bizi zara azkenaldi honetan. Bizipoza ematen du, bai, lagunarte eta pattarrartean ibiltzeak, baina bere ondorioak ere antzematen hasiko zinen honez gero, ezta?



GEMINI

Maiatzaren 21etik
Ekainaren 20ra

Burua argi izango duzu, Gemini. Berbetarako izugarriko gogoia izango duzu eta berriketa batean ari izango zara etengabe, baina atsegina izango zara guztientzat zure gaietan berba goxoak tartekatuko dituzulako.



LIBRA

Irailaren 24etik
Urriaren 23ra

Eskuzabal egongo zara inguru guztiarekin guztien arazoak ulertzeko gaitasuna izango duzulako. Oso ondo dago horrela jokatzela Libra, beti ere norberarekin ere berdin jokatzela bada.



AQUARIUS

Urtarrilaren 21etik
Otsailaren 19ra

Bazoaz bai, aspaldian amets egin izan duzun bizimodua lortzen. Poliki-poliki baina seguru Acuarious. Batek baino gehiagok ezin izango du sinetsi zu izan zarenarekin horrelako gauza bat gauzatzera nola demontre irits zintzekoen.



CANCER

Ekainaren 22tik
Uztailaren 22ra


Negozio hartuemanetarako primerako egoera duzu oraingoa Cancer, behar izango duzun grina izango bait duzu. Baliteke zure biziko azukre koxkorrekin topo egitea hauetakoren batean.



SCORPIO

Urriaren 24etik
Azaroaren 22ra

Egonezina izango duzu datozen egunetan eta ezin izango dituzu gauzak daudenetan utzi, tokiz aldatzen ari izango zara etenganbe, denak molestaturiko bazintu bezala. Egoera eta gizalegearekin berdin gertatuko zaizu.



PISCIS

Otsailaren 20tik
Martxoaren 20ra

Ez zara oso atsegina egongo, ez lankideekin ezta etxekoekin. Badirudi ez dizutela zuk nahi besteok arretatik eskaintzen eta zuk hori baino tratu hobea merezi duzula uste izango duzu.

BIDEO-EMANALDIA

Batman

Tokia: Monterron kultur etxea


Eguna: ekainak 1

Ordua: arratsaldeko 4etan

Prezioa: 50 pezeta





Sarrerak: Monterronen

Antolatzailea: Arrasateko Udaleko Euskara Batzordea



Euskararen erabilpena udal hauteskunde kanpainan Arrasaten

AED elkarteak neurtu egin du alderdi politikoek zenbat euskara erabili duten Udal Hauteskunde kanpaina honetan. Horretarako mitinak, komunikabideetan egindako publizitatea, kartelak eta etxez-etxe banatutako orriak aztertu ditugu, ahalik eta erizpide zehatzeneekin. Emaitzak hementxe dituzue:



Egin den bidea ez da makala, baina oraindik lan handia dugu, Arrasate euskaldun dezagun.

Euskaraz bizi!



OPEL CORSA BERRIA

ZEURE ESKU INJINERUTZA ALEMANA



Gasolina edo Dieselaz, 3, 4 edo 5 atekoa. 23 bertsio ezberdinetan. Corsa City, Swing, Gl, Joy, Joy Sport eta GSi. Zeuk erabaki zein hartuko duzun lagun. PSN-PVP: 1.004.000 pta. tatik*

*Fabrikatzaileak gomendaturiko prezioa (Penintsula eta Balearetarako) Garraioa, BEZ eta emate-aurreko gastuak barne.



EZAGUTU EZAZU

TALLERES OLA, S. L.

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46. BERGARA (Guipuzkoa)
Erakusketa ARRASATEn: Loramendi, 2. Tfnoa: 79 05 86
DEBA ARRO. LEINTZ BAILARA ETA GOIERRI GARAIrako
kontzesionaria

Kontzesionari Ofizialak

OPEL 
Hobeak esperientziaz